

Glen Matlock

Ez zuen ikusleak pizterik lortu
KULTURA, 22-23



Aloñak eta Udak etxean irabazi dute

Mondra berdinketarekin itzuli da Pasaiaren futbol zelaitik
KIROLA, 12-13

Saray Leal bergararra

'Gran Hermano' saioko lehiakide
GEUREAN, 2-3



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko urriaren 24a • 2. urtea • 75. zenbakia • 0,90 euro

Etzi Bergarara iritsiko da 18/98+ kaiera ekimena

Mariano Ferrerrek, ekimenaren bultzatzaileetako bat, berbaldia egingo du, bakeaz

18/98+ lan taldeak bultzatutako ekimena asteen iritsiko da gure ibarrera. Hala, etzi Bergaran izango da sumario erraldoi horrek eragindako auziei buruzko iritziak, gogoetak eta ekarpenak gehitzeko aukera. Egun horretan bertan, jada kaieran ekarpena egin duen Mariano Ferrer Bergaran izango da, *Bakea gaur eta hemen* izeneko berbaldia egiteko. **11**

IBARREAN BIRBITAN
Etzi Bergarara iritsiko da kaiera eta eguenean, Arrasatera eramango dute. Bietan, plazan, 18:30ean

HITZALDIA BERGARAN
Mariano Ferrer Miguel Altunan izango da, 19:30ean, *Bakea gaur eta hemen* hitzaldia egiteko

DURANGOKO AZOKARA
Kaiera 18/98+ ekimena Durangon amaituko da abenduaren 12an, Azoka egunetan

100 EKARPEN
Kaiera herririk herri eramaten hasi aurretik ehun lagun ezagunen ekarpenak jaso zituen

ELKARRIZKETA



IZASKUN MOYUA |
EMAKUNDEKO
ZUZENDARIA

"Gazteek uste dute berdintasuna lortuta dagoela"

"Berdintasunerako Defentsa Erakundea otsailean hasiko da"

"Berdintasuna lortu ezean, indarkeria ez da amaituko"

GEUREAN, 4-5



AITOR LIZARRALDE

KONTXAKO BANDERA ELGETAN IZAN ZEN ZAPATUAN

Egun handia izan zen zapatua arrauna jarraitzen duten elgetarrendako. 12:00ak aldera iritsi ziren herriko plazara Hondarribiako arraunlariak txaranga eta guzti. Harrera egin zieten udaletxean, opari trukea egin zuten eta sokatiran ere bai, elgetarren zein Isuntzako arraunlarien aurka. Espalioan Kontxako bigarren estropadako irregularitasunez aritu ziren. "Omenaldi asko jaso ditugu aurten", esan zuten, "baina hau oso berezia izan da". **17**

Pobreziaren kontrako kanpaina

Gaur aurkeztuko du Arrasaten Pobrezia Zero taldeak; plazan, 19:00etan **11**

Agerraldia gaur, Eskoriatzan, Iparragirrerren egoera salatzen **9**

GEUREAN

- Ibarreko odol-emaile finenek domina jaso zuten atzo, Arraten egindako esker on bazkarian | 8
- Estatutu berriaren gainean jardun dugu Katalunian bizi diren sei debagoiendarrekin | 10

Mariano Ferrer
bakeaz arituko da
etzi Bergaran,
Miguel Altunan,
19:30ean | 11

SARAY LEAL BERGARARRA 'GRAN HERMANO' SAIOAN



Ettxera sartu aurreko aurkezpen erreportajeko irudia.



Azpiko erropetan jarri behar zutela agindu zioteneko.



Aldagelatik atera eta etxe barrura bidean.



Tono, Jesus, Saray eta Beatriz.



Saray kontu kontari Javi begira duela.



Jesus eta Saray etxeke sofan.



Tonorekin barreka.



Etxeke jangela. Mahai borobilean lehiakide guztiak.



Kiko A tu lado telebista saioan Sarayri buruz ari zela.

AHIZPA HANDIA | BERGARAN IKUSMIN HANDIA SORTU DU HERRITAR BAT SARTU IZANAK GH-KO ETXERA

Telebistako anaia handiak bergarar ahizpa bat dauka

Saray Leal gazte bergararra eguena ezkerro GHko zazpigarren edizioko etxean bizi da. Gu Bergarako etxekeekin izan gara asteburuan; oraindik sinetsi ezinda daude

Astehenekoa Goienkaria

Asteburuan ez da besterik entzun Bergara aldean. Saray Leal 25 urteko bergararra Gran Hermanon sartu dela eta, han eta hemen entzuten da telebistan ikusitakoa.

Bere etxean ere antzera dabilta; telefona jo eta jo, hartu barik. Tele 5 katetik dagoeneko egin diote amonari eskaintza Emmaren saiora joateko. Berak ordea, ezetz dio; oraingoz behintzat inolako

asmorik ez duela telebistara joateko. Aitortu digunez, "jakin bada kigu gauza asko aterako direla iloba telebistan dagoelako, baina entzuten den guztiak ez dauka zertan egia izan". Dagoeneko txutxu-mutxu dezente zabaldu da GHren webgunean eta guztiak ez dira pozik egotekoak.

SARAYREN GAIXOTASUNA

Hasieratik esan zuen Sarayk fibromialgia duela. Gaixotasu-

nak eragiten dizkion minengatik arazoak izan ditu gazteak behin baino gehiagotan: eskolara joan ezin, lanetik atera behar... Horren kontura Rosanna izaba eta Maite amona ere arduratuta daude: "Espero dezagun krisi larririk ez izatea, min handia izaten baitu".

Saray amona eta izebarekin bizi da Bergaran. Ama, Beatriz Andaluzian du, baina bera da telebistako platoan dagoena. Izebak dioen moduan: "berari dago kio, bera da ama". Fibromialgiatz gainera, badute etxekeok beste ardura pixka bat ere: "Neska oso ona da eta beldur naiz ez ote duten egurtuko. Osterantzean lehiakide guztiakin ondo konponduko dela badakigu". Horregatik, GHko ikusleei Sarayren alde egin dezatela eskatzen die

Rosannak: "Ondo legoke Sarayren aldeko jarrera egotea herrian. Eta, aukera polita litzateke Udalak ere doako telefonoren bat jarzteaz; beste herri batzuetan egin da, ezta! Gainera Sarayk hainbat aldiz esan du, kamera aurrean, Bergarakoa dela".

EUSKAL REALLITYAK

Sarayz gainera, bada beste debagoiendar bat ere reallity show baten: ETBko Basetxea saioan lehiatzen ari da Ana Nevado esko-riatzarra. Anak ere 25 urte ditu eta tabernaria da. Berak esana da, fama eta diru bila joan dela saiora. Elkarbizitzan jasanezina dela ere esan du Anak, baina neska gogorra dela eta edozeri aurre egiteko prest dagoela.

Ikazkinen taldean lehiatzen ari da egunotan ETB1en.



Saray umetan, Beatriz amarekin.



Saray, Rosanna izebarekin.

SARAY LEAL BERGARARRA 'GRAN HERMANO' SAIOAN

• ETXEKOEK ETA LAGUNEK SARAYREN GAINEAN DUTEN IRITZIA



MAITE SOLAR, ISAIAH OSUNA ETA ROSANNA LEAL | AMONA, LEHENGUSUA ETA IZEBA

"Saray oso dibertigarria da, baina lehenengo egunean lehiakideei adi egon zen, neurtzen moduan. Oraindik ez du bere izaera erakutsi"

Mainatsua, pinpirina, imajinario handikoa... Horrela definitzen du Saray bere izeba Rosannak. Bat dator Maite amona ere: neska fina dela, eta ausarta. Telebistaren aurrean izan ziren joan zen egunean, "goizaldeko 3ak arte izan ginen lagun batzuekin batera. Saray zaintzen egon ginen saio osoan. Lasai ikusi genuen; gu aldiz oso urduri geunden", zioen Rosanak. Amona Maitek, ordea, isil sumatu zuen Saray. "Bera ez da horrelakoa, oso dibertigarria da, baina lehenengo egunean etxeko lehiakideei adi-adi egon zen, begiratzen, ikus-

ten, neurria hartzen moduan. Oraindik ez du bere izaera erakutsi".

Sarayren lehiakideen gainean, "oraindik goiz" dela ezer esateko aitortu diguten arren, Rosannak oso ondo ikusi zuen Inmak bere lehiakide bat kaleratzeko aukera egin ez izana. Dena dela, ez zegoen batere konforme zazpigarren Gran Hermanon "etxera sartu ahala jendea bidaltzen hastearekin. Nire ustez ez da batere justua etxera sartzen zarea esatea eta bat-batean kalera bidaltzea; aurreko edizioetan inoiz ez dute horrelakorik egin".



LEIRE BOLAÑOS | SARAYREN LAGUNA

"Beldur naiz, Saray hain pertsona ona izanik, ez dioten egurra emango. Argi zeukan esperientzia berezi hori bizitzeko sartu nahi zuela etxean"

Orain dela bi urte ezagutu zuten elkar Leirek eta Sarayk. Lagunak izateaz gainera, lankideak ere izan dira Ziripot tabernan. "Neska oso berezia da Saray", dio Leirek, "jakin banekien etxean sartzeko aukeratu zutela". Saray nolakoa den galdetuta zera esan digu: "alaia, zoroa, izaera onekoa eta etxean eztabaidak saihestuko ditu".

"Sarayk argi zeukan esperientzia berezi hori bizitzeko sartu nahi zuela etxean eta ez duela pentsatu hortik gerora begira bestelako etekinik aterako duenik. Ez dut uste inolako estrategiarekin sartu

denik lehiaketara; are gehiago, beldur naiz, hain pertsona ona denez, ez dioten egurra emango", azaldu digu Leirek.

Sarayren etxeko sarrera ikusita, "urduri" zegoela aitortu digu Leirek. "Urduri samar ikusi nuen; bera normalean ez da horrelakoa, baina isil samar nabaritu nuen. Oraindik ez dugu benetako Saray ikusi".

Saray erraz maitemintzen dela ere esan digu eta "Kubako mutila eta golf jokariarekin ondo konponduko dela uste dut. Dena dela, goizegi da oraindik".

EDU ABASOLO | 'GRAN HERMANO' TELEBISTA SAIKO ERREALIZADOREA

"Ez da erraza, hainbeste 'freakiren' artean, jende 'normala' topatzea"

M.D.

Bere seigarren GH da. Aretxabaletarra kameralari hasi zen orain dela sei urte eta aurten, lehenengo, errealizadore lanetan ari da. Erronka profesional handia onartu du GOITBko kameralari ohiak.

Erronka itzela daukazu aurten! Erabat emozionatuta nago. 60 kamerek hartzen dituzten irudiak, 60 monitoretan ikusi eta zuek ikusiko duzuen aukeratu. Zoratzekoa da, baina aldi berean ikaragarria. Ze itxura hartu diezu lehiakideei?

Casting oso ona egin da aurten. Ez da batere erraza, hainbeste freakiren artean, jende normala topatzea. Bi egunetan ezin izan dut gauza askorik ikusi, baina joko asko ematen ari diren pertsonaiak daude. Pepe oso jatorra da; sekulako lana egiten dabil jatekoaren kontuan. Inmak modan jarri du dagoeneko *anda ya* esamoldea eta Arturok *Hellow*. Rakelek puntu arraroa dauka; ez dirudi oso argia.

Eta Saray? Nola ikusi duzu?

Inor ez konturatzeko moduan dago. Bestalde, beti dago irribarretsu eta aurpegi onarekin. Zentzu horretan *Fresita* gogoratzen digu lankideoi.

Aldaketa asko izan ditu aurten go GHk. Zer lortu nahi izan da?

Kontuan da zazpigarren edizioa dela eta zerbait berria eskaini beharrean ginela jendea erakartzeko. Bestela ere, ikus-entzule asko ditu saioak, baina programaren dinamikan aldatzeko sartzeko ikusmina sortzen du. Gainera, hasierako gertaerek egoera bitxi asko sortu dituzte eta ezusteko gehiago eragingo ditu gaurtik aurrera. Orain arte lehiakideak etxera sartu baino ez ziren egiten. Orain, berriz, jokariak gehiago ezagutuko direla uste dugu, denbora guztian sortzen ari diren egoerengatik.



Edu Abasolo.

Mercedes Milak asko agintzen du?

Egia da tabakoaren kontuarekin asper-asper eginda gaituela, baina lankide oso jatorra da. Bere etxean 24 orduko kanal zuzena dauka; egunero bidaltzen zaizkio informeak. Bera da anaia handienetan handiena.

Blogetan

Hainbat ataritan

goiena.net eta **GHren** webgune ofizialetik atera ditugu jendeak esandako batzuk, Sarayren gainean eta Goienak GHri buruz bloga jarri izanagatik.

ALAI ETA DISKRETOA

Hasi besterik ez da egin eta oso gutxi ikusi dut, baina esango nuke Saray naturalena dela. Ez dut uste irabaziko duenik, baina asko irauun dezake.

Unai / www.goiena.net

GUTXIEN DESTAKATU

Raquel López izango da joko gehien emango duena, baita Inma ere. Friki galantak baitira hauek biak. Momentuz, Saray gutxien destakatzen duenatarikoa da, hauek izaten direlako finalera heltzen direnak.

Iñaki / www.goiena.net

EZ ZAIT GUSTATZEN

Ez zait gustatzen ideia, inguruko neska bat bertan sartu delako pasiboago, subnormalago eta espainiarrago egiten gaituen programa bati buruzko bolg bat sortzea.

Olegario / www.goiena.net

BETI BERDINA

Inguruko neska batek estatuko programa ikusienatariko batean parte hartu behar du, eta Goienak aukera ematen digu parte hartzeko, gero bakoitzak baloratu dezan, bere denbora balioetsua galdu nahi duen ala ez.

Kuxkurra / www.goiena.net

GUSTUKOEN SARAY

Saray, nire gustukoena zara. Animo eta aurrera!

Anonimo /

www.granhermano.telecinco.es

ISILA DA

Ederra eta isila da... Plater bat apurtu ez duenaren aurpegia du.

jarek /

www.granhermano.telecinco.es

FRESITA

Gozoezia iruditzen zait. Fresitaren gehiegizko antza dauka.

www.granhermano.telecinco.es



BergaraCars



Zure konfiantzazko multi-marka kontzesionarioa

BMW 120 D BERRIA
BMW 320 I BERRIA
BMW X3 2.0 BERRIA
MINI COOPER BERRIA
MB ML 320 BERRIA
AUDI A4 2.0TDI BERRIA

Pablo Irizar

Aitziturri 1 • Bergara

T: 943 76 18 71 • F: 943 76 58 22

www.bergaracars.com

bergarcars@yahoo.es

VW TOUAREG R.5 2004
VW TOUAREG V10 2004
BMW 320 D 2005
BMW 530 D 2003
BMW M3 2003
AUDI A3 TDI 2003

Oñatiarra sortzez, hogeita bost urte dira Gasteizen bizi dela. 1999 urtea ezkerreko Emakunden aritu da Txaro Arteagaren ondoan. Uztailean izendatu zuten

Emakundeko zuzendari eta aitortu digunez, "Txarori ikasitakoa praktikan jarriko dut, izan daitekeen irakaslerik onena izan dudalako". Hiru seme-alaben ama izanik,

"hezkuntza egokian" dauka berdintasunerako esperantza jarria. Hala ere, badauka beste erronka profesional bat: berdintasun lege berria garatzea.

IZASKUN MOYUA | EMAKUNDEKO ZUZENDARIA

"Gazteek uste dute berdintasuna lortuta dagoela, baina ez da horrela"

Marijo Deogracias

Uztailetik Emakundeko zuzendaria zara. Azkeneko gertakariak bizitzea ez zen erraza izango.

Benetan egun gogorrak izan dira, sufrimendua dagoelako gertaeren erdi-erdian.

1999tik Txaro Arteagaren ondoren aritu zara lanean. Berarengandik dezente ikasiko zenuen.

Asko, duda barik. Andereño-rik onena izan da. Asko maite dut eta aitortu behar zaio oso ausarta izan dela eta balore asko dituela. Gainera, Emakunde sortu zenean egoera oso bestelakoa zen; agenda politikan genero berdintasuna sartuta dago gaur egun, baina lehen ez zegoen sentsibilitate hori. Kargua hartu nuenean, uztailearen 8an, esan nuen legez, asko eskertzen diot berak egin duen lana eta niri irakatsitakoa. **Berdintasunaren legea onartu duzue orain. Orokorrean zer dio lege horrek?**

Hasteko, genero ikuspegia politika guztietan sartzea aurreikusten du. Hori litzateke estrategia nagusietako bat. Bestea, neurri zehatzak, ekintza positiboak lantzea litzateke. Administrazioaren barruan genero politikak lantzeko erak ezartzen dituzte legeak eta horren lehenengo adibide garbia legebiltzarreko paretotasuna da. Neurri zehatzak ezartzeari dagokionez, otsailean bertan hasiko da lanean defentsa erakundea deitzen dena. Diskriminazio kasuak lantzeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea izango da: sektore pribatuan sexuaren ondorioz gerta litezkeen balizko egoera edo egunera baztertzaileetatik herritarrak



Uztailean onartu zuen Emakunde Emakumeen Institutuaren zuzendari kargua Izaskun Moyuak.

"Genero ikuspegia politika guztietan sartzea aurreikusten du lege berriak"

"Berdintasun legea tresna bat baino ez da, baina oso garrantzitsua da eta garatuko dena"

"Berdintasunerako Defentsa Erakundea otsailerako martxan izango da"

"Gizon eta emakume bakoitzaren pentsakeran eragin beharra dago"

babesteko asmoa dauka. Berdintasun printzipioa betetzea sustatuko da. Horrela definituko nuke berdintasun legea, baina oso konplexua da, izan ere, legea tresna bat baino ez da, tresna garrantzitsua hori bai, baina garatu beharreko tresna: dekretu bitartez zehaztu beharko dira arauak eta horrekin batera, Emakunderen laugarren plana martxan jarriko dugu. Horretan lagun izango dut Emakunderen idazkari nagusi berria, Arantxa Madariaga. Bera udal administrazioetik dator; horrekin esan nahi dudana da, ohituago dago-

ela herritarrengandik gertu ari zera eta hori ezinbestekoa izango zaigu gure ibilbide berrian. **Hortaz badaukazu esku artean nahikoa lan.**

Legea garatzeak luze joko digu; hala ere, hor jasota dauden erabakietako batzuek epe jakinak dituzte. Esaterako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea otsailerako martxan egotea aurreikusita dago; hortaz, lehentasuna izango du alderdi horrek. Hala ere, ez da bakarrik izango, beste puntu batzuk, epe zehatzik izan ez arren, premien arabera adostu-

ko ditugu dekretu bidez. Lana badago, zoritxarrez, berdintasunerako bidean gauza asko dagoelako egiteko oraindik.

Horixe galdetu nahi nuzun, izan ere, legeak lagundu egingo du, baina horrekin bakarrik ez da nahiko izango, ezta?

Horrela balitz, samurra litzateke konponbidea. Baina hori baino sakonagoa da gure lan esparrua. Indarkeriaren auzian, esaterako, babes neurriak hartzea ondo dago, baina gizartearen mentalitatea da landu behar den esparrua. Eta hortxe dago, hain justu, erronkaren zailtasuna.

Gizon eta emakume bakoitzaren pentsakeran eragin beharra dago eta hori oso zaila da. Hala ere, poliki-poliki bada ere, pausoak eman direla esango nuke eta pauso oso garrantzitsuak gainera.

Hala ere, gazteen artean esaterako, indarkeria kasuak egon badaude.

Bai, baina ez nuke esango kasu gehiago direnik, gazteen artean gertatzeagatik. Egia da gazteen artean ere badirela indarkeria kasuak, baina ez daukagu datu zehatzik gehiago direla adierazten dutenik. Nahiko zuhurak izan beharra daukagu zen-

tzu horretan. Azken batean, patriarka-gizarte batetik gatozela geu guztiok eta ohitura horiek ezin direlako egun bate-tik bestera aldatu. Gainera, gazteek pentsatzen dute berdintasuna lortuta dagoela, baina hori ez da horrela. Lanean jarraitu behar dugu, geuk eta gazteok, arlo guztietan eta hartu-eman guztietan; bestela ezingo dugu aurrera egin.

Orain dela gutxi, gai horretaz eztabaidatzen, batek esaten zidan indarkeria kasuetan, emakumeak babesteko neurriak hartu egiten direla, baina gaizkileei begirako neurriak ere landu beharko lirartekeela.

Egia da biktimen artean kasuistika handia dagoela, batzuetan ertzainak joaten zaizkie biktimei abisua ematen atea ez zabaltzeko esanez eta emakumeek muzin egin eta atea zabaldu eta erasoak jasaten dituzte; beste batzuetan, baliteke, Ertzaintza berandu iritsi izana abisua jaso ostean; eta beste askotan ondo funtzionatzen dute babes neurriek. Horregatik diot kasuistika oso zabala dela. Erasotzaileak berrezitzeko lana ere egin izan dugu: ikastaroak eta berreziketa proiektuak izan ditugu martxan eta, hala ere, kasu batzuetan ez da ezer lortu. Horrelakoetan, badago esaera bat gaztelaniaz, gogora etortzen zaizuna: "munda geratu dadila, jaitsi egin nahi dut eta!". Baina, aurrera jarraitzea baino ez zaigu geratzen. Bakoitzak bere arloan jarrera aktiboa izan behar du. Ezin dugu onartu indarkeria jarrerarik, ez norbere hartu-emanetan ezta ingurukoetan ere. Berdintasuna lortuko dugu; lortu ezean, indarkeria ez da amaituko.



EMAKUNDE

Perfila

- **ADINA:** 47 urte beteko ditu abenduaren 12an.
- **JAIOTERRIA:** Oñatin sortu zen, baina orain dela 25 urte bizi da Gasteizen.
- **IKASKETAK:** Psikologian lizentziaduna, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan eta Kazetaritzan, EHU.
- **ARLO PROFESIONALA:** Arabako Foru Aldundian aholkulari (1989-1991); Jaurlaritzako Administrazio publikoaren Institutuan aholkulari (1991-1994); Arabako Diputazioaren Ongizate saileko teknikari (1995-1998); Emakundeko idazkari orokor (1999-2005).

Gure gizarteak zer egin behar du diozun egoera normalizatzen joan dadin?

Heziketa da landu beharreko arlorik garrantzitsuenak. Gure seme-alabak berdintasunean hezi behar ditugu. Badira ezinbestean erakutsi beharreko kontzeptu batzuk: maitasuna eta amodi-

oa, errespetua, tolerantzia, berdintasuna... Kontzeptu horiek ezagutu, ulertu eta onartu behar dituzte hurrengo belaunaldiek eta baliteke, etorkizuna beste era batekoa izatea. Azken batean, horixe nahi dugu eta geuk guztiok.

Kataluniako gobernuaren prostituzioa arautzeko lege bat prestatzen ari da. Zer iruditzen zaizu?

Teoriatik praktikara alde handia dagoela. Arazoa oso konplexua da eta faktore askok eragiten dute gai horretan. Gainera, bada aztertu behar den ikuspegi garrantzitsu bat: eztabaidan parte hartuko dutenak nortzuk izan behar duten. Prostituzioan arlo asko nahasten dira, emakumeen egoera, eskubideak, arlo ekonomikoa... Beste herrialde batzuetan jarritako lege eta arauak aztertu behar dira, baina erabakia berehala ezin dugu orain hartu. Gehiago aztertu behar da eta egin daitekeena argudiatu.

Lan munduan ere berdintasun gabezia nabarmena da oraindik. Emakumeak zer erakutsi beharra dauka oraindik?

Dagoeneko nahikoa erakutsi dugu. Hala ere, egia da, esaterako amatasunaren kontua gehiago landu behar dela, baina aldi berean burutik kendu behar dugu, geuk guztiok, amatasuna bakar-bakarrik emakumeen kontua dela. Emakumeak ezinbesteko du autonomia ekonomikoa izatea eta, askotan, badirudi ate bat zabaltzea lortzen dugunean, beste bost itxita topatzen ditugula, baina lanean jarraitzen badugu bidea egingo dugu. Gure lan arloan onak izatea nahikoa dugu eta ez daukagu zertan ezer erakusten aritu.

Diskriminatu zaituzte inoiz edo diskriminaturik sentitu zara?

Bai, egunero. Lanean, etxean, kalean... Emakumea naizen aldetik, beste emakume bat diskriminatzen duten bakoitzean neu ere diskriminaturik sentitzen naiz.

"Ezin dugu onartu indarkeria jarrerarik, ez norbere harremanetan ezta ingurukoetan ere"

"Maitasuna, errespetua eta berdintasuna erakutsi beharreko kontzeptuak dira"

"Prostituzioa arautzeko eztabaidan nork parte hartu hitzartu behar da"

"Emakume bat diskriminatzen dutenean neu ere diskriminaturik sentitzen naiz"

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

[www.goiena.net-eko blog komertzialak](http://www.goiena.net-eko_blog_komertzialak)

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-maila onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak

/4quattro4
/arregi
/atai
/azkarate

/joseba
/BZ-sistemas
/gallastegi
/garaia

/guztizeder
/korozabaleta
/lilura
/multipticas

/ohiak
/okipark
/vitoria
/pando

/udalatz
/udalaitz





TELEFONO ZENBAKI **BERRIAK**

Irakurle, hauek izango dira aurrerantzean
Goienkariako eta Berrigarako telefono zenbakiak:

Goienkaria

943 25 05 01

Iragarki Sailkatuak

943 25 05 01

Berrigara

943 25 05 02

Faxa

943 25 05 13

Hartu kontuan!

ARANTZAZU | ARANTXA IZENEN EGUNA OSPATU ZUTEN

Arantxa izeneko 300 lagunetik gora bildu ziren atzo 'Arantxen egunean'

Aurten, ohitura hau finkatzeko 'Arantxen batzordea' sortu gura izan dute datozen ospakizunetan ahalik eta izenkide gehien batu ahal izateko

Jon Berezibar

Euskal Herriko makina bat lekutatik etorritako Arantzazuz bete zen Oñatiko Basilika domeka eguerdian. Zenbaketa zehatzik ez zuten egin, baina 300 Arantxa eta Arantzazutik gora bildu zirela kalkulatu zuen Arantxa Zubizarretak, Arrasateko antolatzaileetako batek. Topaketa eguerdiko meza entzun ostean egin zuten Gandiaga Topagunean eta ostean bazkaria egin zuten. Asko hedatutako izena bada ere, batez ere Gipuzkoa aldetik animatu ziren Arantzazu asko. Horietako askok gainera, familiaren tradizioarengatik daukate izena eta ohitura moduan daukate; belaunaldiak batu eta amama eta ilobak animatzen dira Arantzazuko topaketara. Izan ere, anekdota eta istorio asko entzuteko aukera egon zen domekako ospakizunean. Gehienek Ama Birjinarenganako debozioarengatik daukate Arantxa izena. Antolatzaileen arabera, 50eko hamarkada inguruan oso ohikoa zen izena eta domekan bertan egondako gehienak belau-naldi horretakoak ziren.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Mezetatik irtendakoan, familia argazkia atera zuten basilikaren sarreran.

Meza entzun eta gero, Gandiaga Topagunean batu eta bazkaltzera joan ziren Arantxak; guztira 200 bat emakumek eman zuten izena bazkarirako.

Aurten, ospakizunaz gain, egun hau urtero antolatzen hasteko asmoa daukatenez, horretarako batzorde bat eratzea izan da "Arantxen" asmoa. Asmo

horrekin bilera egiteko aprobe-txatu zuten bazkalordua eta ondorena.

ARANTXEN BATZORDEA

Arantxarik gehien orain dela 10 urte biltzea lortu zuten, 2.000 elkartzera lortu zuten eta. Ordu-tik hona, beste behin bakarrik egin da bilera hau, 2001ean, eta orduan ere 400 bat emakume igo ziren Arantzazura. Aurten, baina, egun hori maiztasun handiagoarekin ospatu ahal izateko

antolaketa batzorde bat eratu gura izan dute. Arantxa Zubizarretak azaldutakoaren arabera herri edo eskualde bakoitzeko ordezkariak aukeratu gura dituzte datozen topaketetako antolakuntza errazte aldera, orain arte Arrasatetik antolatu dute-eta eguna. Honela, ia urtero biltzeaz gain ahalik eta Arantxa gehienengana iristea da helburua. Izan ere, egunkarietan argitaratuta eta ahoz aho zabaldu ohi dute bilaren eguna.

Gehienek Ama Birjinarenganako debozioa dela-eta dute Arantxa izena

Eskualde bakoitzeko ordezkariak aukeratu zituzten

• ARANTXA, ARANTZAZU EDO ARAN, DENAK AMA BIRJINARI BISITAN



MARIA ARANTZAZU
ALKORTA | DONOSTIA

"Aitak bost semeren ostean alaba bat eskatu zion Ama Birjinari eta eskaera bete egin zen. Ezkondu ere hemen egin nintzen eta urtero gutxienez hiru bider etortzen naiz alabarekin basilikan meza entzutera".



ARANTXA, ARANTZAZU ETA
ARANTXA | ARETXABALETAKO

"Gu, gure aldetik kotxez etorri gara baina Aretxabaletako talde galanta etorri da gaur". Erdiko Arantxa txiki txikitatik etorri da bilera honetara bere amaren eskutik. Bost urte zituenetik ospatzen du, hain zuzen ere, gainontzeko Arantzazuekin egun hau.



ARANTXA OIARTZABAL ETA
ARANTXA ARRAZOLA | OÑATI

"Ama Birjinaren oso sinestunak gara gu, herrikoa da-eta". Orain dela 50 urte, egin zen lehen aldian, izan ginen eta orain dela lau ere bai. Arantxa Arrazolak kontatu digu ama Debakoa izanda Itziar jarri gura ziotela, baina azkenean Oñatiko aitak irabazi zuen.



ARANTXA KOADRILA |
ZEGAMA

"Goieritik jende asko etorri gara eta Zegamatik hamar bat Arantxa. Gurekin batera Azpeitiarrak ere etorri dira, makina bat Arantxa etorri gara batera autobusean eta egun ederra pasatuko dugu". Talde guztietatik jendetsuena izan da gipuzkoar hauena eta kontatu zigitenez, eurretako asko ia urtero etorri ohi dira basilikan egun hau ospatzera.



AITOR LIZARRALDE

Arraten, bazkaltzera sartu aurretik harrapatu genituen domina jaso zuten odol-emaileak.

OMENALDIA | EMAILE HANDIA AIPAMEN BEREZIA MEREZI IZAN DUTE LUIS MARI JAUREGI, PILAR ARANGUREN ETA KONTXI LARRAÑAGAK

Odol-emate gehien egin dutenek domina jaso zuten atzo, Arraten

Bergarako, Oñatiko, Antzuolako eta Elgetako 74 odol-emailek jaso dute Odol Emaileen elkarteko omenaldia

M.B.

Arraten ospatu zuten atzo egun handia Bergara, Oñati, Antzuola eta Elgetako odol-emaileek. Meza entzun zuten lehenengo eta horren ondotik bazkari ederra

egin zuten. Baita odol-emate gehien egin duten emaileek dagozkien dominak jaso ere. Esandako lau herrietako 74 emailek jaso dute domina, nahiz eta atzo ez zuten guztiek Arraten egoterik izan. Arduradunen esa-

netan, dena den, helaraziko dizkiete oroigarriok. 25 aldiz, 40 aldiz (emakumeak), 50 aldiz (gizonezkoak) eta hortik gora emate egin dituzten lagunei eskerrak emateko modua da dominena.

Aipamen berezia merezi izan dute Luis Mari Jauregi eta Pilar Aranguren antzuolarrek eta Kontxi Larrañaga bergararrak. Hirurak Emale Handia izendapena jaso dute, 50etik gora emate egin dituzte eta.

Domina jaso dutenak

BERGARA

• 25 emate

Luis Mari Alberdi
Lierni Alberdi
Meltxor Alberdi
Manuel Aranburu
Ana Aranburu
Kontxi Arejolaieba
Jose Ignacio Balentziaga
Esther Barrero
Aintzane Bideluze
Julian Cabo
Enrique Txurruka
Felix Etxanobe
Luis Etxeberria
Jesus Eguren
Maria Mercedes Elexpuru
Jose Mari Fernandez
Julio Gonzalez
Blanca Gisasola
Maria Vicenta Irazabal
Angel Jimenez
Lourdes Larrañaga
Mari Concepcion Laskurain
Joseba Leturia
Angel Luis Lopez
Juan Carlos Montero
Maria Teresa Mugerza
Ane Miren Olabarria
Mire Edurne Peña
Joaquin Polvorosa
Alfonso Romera
Albeto Samaniego
Iñigo San Miguel
Maria Concepcion Urteaga
Jesus Mari Zabaleta

• 40 emate (emakumeak)

Mercedes Lopez
Isabel Martinez de San Vicente
Teresa Puy
Jone Salegi
Ascension Santa Maria
Maria Antonia Ugarte

• 50 emate (gizonak)

Juan Kruz Azkarate
Jaime Erdabide
Juan Carlos Gallastegi

Jose Miguel Lazkano
Maria Kruz Sanchez

• Emale handia

Concepcion Larrañaga

OÑATI

• 25 emate

Carmen Barrena
Mertxe Sanz
Natividad Antonio
Pedro Lopez
Margarita Fernandez
Mertxe Arabaolaza
Elena
Carmen Maiztegi

• 40 emate

Marisa Isabel Altube
Maria Teresa Villar

• 50 emate

Jose Mari Balanzategi
Concepcion Morcillo
Marcial Lucas
Federico Calzada

ANTZUOLA

• 25 emate

Lourdes Badiola
Jesus Kortabarria
Xabier Etxeberria
Gorka Garitano
Elena Muñoz
Jesus Mari Odrizola
Maria Jose Rodrigo

• 40 emate (emakumeak)

Maria Angeles Igarza
Miren Zubillaga

• Emale handiak

Luis Mari Jauregi
Pilar Aranguren

ELGETA

• 25 emate

Karmelo Errarte
Juan Mari Otxoa
Jose Mari Arotzena



KONTXI LARRAÑAGA |
BERGARA

64 emate egin ditu. 30 urte zituela hasi zen odola ematen eta gaur egun, hiru egiten ditu urteko (ahal direnak). "Oso gustura egiten dut", esan zigun, "guztiz beharrezkoa da, gainera".



KARMELO ERRARTE |
ELGETA

25 emate egin ditu. 13 edo 14 urte zituela hasi zen. "Odol beharrean egon nintzen behin, eba-kuntza baten ondoren eta jabetu nintzen garrantzitsua dela odola ematea".



MIREN ZUBILLAGA |
ANTZUOLA

43 emate egin ditu. 25 urterekin hasi zen ematen eta urtean hiru-tan ematen du. "Odola ematen ez dutenek ez dute lotsarik", esan zigun. "Oso erraza eta garrantzitsua da odola ematea".



ARGAZKI PRESS

Euskal Literaturari buruzko liburu eta txosten ugari argitaratu ditu Ana Toledok.

Euskaltzaindiako kide oso aukeratu dute Ana Toledo

Euskaltzaindiako kideek egubakoitzean gehiengo osoz aukeratu zuten

Ana Toledo antzuolarra euskaltzain oso

J. B.

Ana Toledo Lezeta antzuolarra aho batez izendatu zuten euskaltzain oso egubakoitz goizean Euskaltzaindiako kideek Mungian helburu horrekin egindako bilkura nagusian.

Juan San Martin zenaren aulkia hartuko du Ana Toledok eta erakundearen historian bigarren emakumezko euskaltzaina izango da, Miren Azkaraterekin bate-

ra. Bere izendapena Jose Luis Lizundia, Jean Haritschelhar eta Xabier Kintanak proposatu zuten joandako irailean zendutako kidearen lekua betetzeko.

EUSKAL LITERATURAN ADITU Filologia Hispanikoan lizentziaduna eta Euskal Filologian doktorea da Ana Toledo. Gaur egun Deustuko Unibertsitateko Giza Zientzien eta Filosofia eta Letren Fakultateetan da irakasle. Eus-

kal Literaturaren inguruan idatzi asko argitaratutakoa da antzuolarra; bereziki Azkue, Mogel, Etxepare eta d'Abbadieren lanak aztertu ditu. Euskaltzaindian 1989 urtetik dabil lanean, Literatura Ikerketa sailean hasiera baten eta Sustapen Batzordean azken urteotan. 1996tik euskaltzain urgazle edo laguntzaile da. Aurtengo maiatzetik, gainera, Euskaltzaindiako Gipuzkoako ordezkaria ere bada. Literatur kritika, kontagintza eta eleberrigintza dira Ana Toledoren alor nagusiak.

Euskal literatura zabal aztertu badu ere, hainbat lehiaketatan izan da epaimahaikide.

Senideek oraindik ez dute Marixol presoaren berririk

Presoari eta senideei elkartasuna adierazi eta sakabanaketa salatzeko mobilizatzeko deia egingo dute gaur

J. B.

Hilaren 13an Frantziako Tolosatik Marsellako espetxera eraman zutenetik senideek ez dute izan Eskoriatzako presoaren gaineko berririk. Marixolen egoera txartzeaz gain bisita egiteko auke-

rak murrizten zaizkio aldaketa honekin senideek salatzen dutenez. Albiste gehiagoren esperon, egoera hori salatu eta presoaren borrokari babesa emateko mobilizatzeko deialdia egin du Etxerat taldeak arratsaldeko 19:30an herriko plazan.

• ZAHAR BERRI EGITASMOA, ARRASATEN



AITOR LIZARRALDE

EUSKALDUN ZAHAR ETA BERRIEN TOPALEKU

AEDren Zahar Berri egitasmoa Berba taldeak hitzordua izan zuen egubakoitzean. Zazpi lagun batu ziren –lau euskaldun berri eta bi zahar– eta ekimenaren xedeari jarraituz, euskaraz mintzapraktika egiteko batu ziren. AEDren elkartearen afari-merienda egin eta gero antzerkira joan ziren guztiak. Hiru astetik behin egiten duten ekintza da eta hurrengo ere ia adostuta laga zuten: mendi irteera.

• ANTZUOLAKO GAZTEGUNEA



AITOR LIZARRALDE

TABAKOAREN ERAGINAK AZTERTU ZITUZTEN

Antzuolako gaztegunean 25 bat gazte (12-14 urte) batu ziren zapatu arratsaldean. Droga menpekotasunaren prebentziorako tailerra antolatu zuen Udalak euren dako. Gai horretan hezi nahi dituzte gazteak. Zapatuko saioan tabakoaren kalteez jardun zuten; baita esperimentu txikia egin ere tabakoak eragiten dituen gaitzez jabetzeko. Beste hiru saio egingo ditute datozen zapatuetan, 15:00etatik 19:00etara: alkohola, cannabisa eta droga gogorak.



AITOR LIZARRALDE

Marixolen aldeko manifestazioa egin zuten zapatuan Eskoriatzan.

KATALUNIako ESTATUTA | AZAROAREN 2AN TESTUA EZTABAIDATZEARI EHINGO DIO KONGRESUKO ELEDUNEN BATZARRAK

Katalunian bizi diren ibarreko sei lagunekin estatutu berriaz aritu gara

Katalunian bizi, lan edo ikasi egiten duten debagoiendarrekin egon gara. Kataluniako estatutu berriaren prozesua nola bizi izan duten jakin nahi izan dugu. Baita euren hurbilekoen artean sortu diren eztabaiden berri jaso ere

A.G.

Espainiako Kongresuko Mahaiak tramiterako onartu zuen urriaren 18an kataluniako Estatutuaren erreforma proposamena. Mahaiko kideetatik, PSOE alderdiko hirurek eta CiUko eta IU-ICV alderdietako kide banak bozkatu zuten alde, eta PPko laurak kontra.

Tramitazio bide hori ireki eta gero, azaroaren 2an, testua eztabaidatzeari ekingo dio Kongresuko Eledunen Batzarrak.

Prozesua luzea izan da eta ikamika ugari eragin ditu; batetik, alderdi politikoengan, PPk esan zuen egubakoitzean, 500.000 euro inbertituko dituela estatutuaren erreformaren kontrako kanpaina batean. Bestetik, komunikabide-

etan ere eguneroko gaia izan da. Bestalde, atzo, *El Mundo* egunkariak argitaratu zuenez, Gobernuak nazionalista kataluniarrei finantziario formula eskuzabala goa eskainiko die eta eskuduntza gehiago baldin eta estatutoaren testuan hainbat mozketak egiten badituzte. Besteak beste, nazio hitza aldatzea eta Segurtasun Soziala eta merkatuaren batasuna.

ENEIDA ITURBE | ANTZUOLA

“Estatutuan interesik ez duen jende ugari dagoela uste dut”

Inguruan dituen lagun gehienek positibozat jotzen dute Estatutua “gizartea aldatzen den bezala, legeak ere aldatu beharra dagoela uste dute eta” esan digu Eneidak. Orokorrean, Kataluniak bere zergak kudeatzeko, bere burua izendatzeko modua aukeratzeko, eta bere izaera, kultura eta hizkuntza sustatzeko pauso bat dela ere badiote antzuolarraren ingurukoek. Beste alde batetik, gehitu du “Estatutua interes ekonomikoek mugitu dutelako sentsazioa” daukatela eta hori ez dela euren gustuko.

INFORMAZIO GUTXI

Estatutuaren edukien gaineko informazioari dagokionez, “eskasa” iritzi diote Eneidaren lagunak. “Ez



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

zaie justua pentsatzen Espainian eman zaien berekoi irudia, eta errespetua eta euren erabakiak hartzeko eskubidea eskatzen dituzte”.

Bestalde, Eneidak gehitu du Estatutan interesik ez duen jendea ugaria delako sentsazioa duela.

IBAN BARRUTIABENGOA | ARRASATE

“Gai nagusietako bat arlo ekonomikoa izan dela uste dut”

Estatutuaren prozesua hasi zenean, “jendea nahiko pozik” ikusi zuen Ibanek. Azaldu duenez, “inguruan ditudan gehienek sentimendu nazionalista dute, eta prozesua hasi zenean, gauzak mugitzen hasi zirelako pozik zeuden. “Prozesuak zeresan ugari eragin du Madrilen, eta horren harira bi erreakzio mota ikusi dut nire inguruan: jende nagusiagoak ez die halako garrantzirik eman Estatutuaren aurkako jarrerari, aurrez idatzitako gidoia zela uste zuten, aurreikus zitezkeen komentarioak zirela. Gazteagoek, berriz, bestela erreakzionatu dute, ez zaizkie gustatu nazio izaera apurtzea zela esaten zuten komentarioak”.

Inguruan entzun dituen komentarioen arabera,



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

“alderdi ekonomikoari garrantzia eman diote. Nik uste dut Kataluniak estatuari eman behar dion diru kopuruaren gaia adostuta laga zuten momentutik aurrera, gainerako gaiak errazago adostu dituztela, nazioa bai/ez eztabaida, esaterako”.

JULEN COBOS | ARETXABALETA

“Politikarien bulego paktua dirudi Estatutuak”

“Ez dago ilusio handirik eta ezta interesik ere”, esan digu Julenek. “Kalean eztabaida gutxi dago; ez dago alderatzerik, aurreko Estatutuak, demokraziaren lehenengo urteetan, sortarazi zuen giza mugimenduarekin”.

Julenek gehitu duenez, “Estatuta bera eta bere edukiak baino, Madrilen sortarazi dituen erreakzio eta adierazpenak dira berba-gai. Badirudi, etxean baino kanpoan zeresan handiagoa ematen dabilela. Kataluniarren borondatearen emaitza baino, politikarien bulego paktua dirudi”.

KONTZERTU EKONOMIKOA

Julenek jaso duen beste inpresioetako bat da kataluniarrek “praktikoak” direla: “Estatutu berriaren



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

alde ekonomikoak ideologikoak baino eztabaida handiagoa piztu du; eskaldunon kontzertu ekonomikoa nahi dute. Hemen go jendeak badu oso barneratuta sentimendu bat, hau da, estatutuaren itsulapikoan asko sartu eta gutxi jasotzen dutela”.

LAURA UGALDE | BERGARA

“Uste dut gehegi polemizatu dela nazio hitzarekin”

Jendea oso ilusionatuta dagola uste du Laurak: “Uste dute batez ere lorpenak autogobernutik etorriko direla, izan ere, Kataluniarren iritziak, ez dator bat zergetan ordaintzen dutena Madrildik jasotzen dutenarekin azpiegituran, hezkuntzan...”

PPren jarrerak ez du inor harritu, Lauraren esanetan, “baina Parlamenteko indar politikoen %80-90ak estatutua onartu arren, Madrilen aurreiritzi asko dago, PP eta PSOEren aldetik eta baita hainbat komunikabideren aldetik ere. Azken horiek, kataluniarrek independentzia nahi dutelako ideia zabal-tzen dihardute”.

Laurak uste du gehiegi polemizatu dela nazio hitzarekin: “Kataluniarrek esta-



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

tut berria nahi dute eta halako gai polemikoak bigarren mailakotzat dituzte”. Eta gehitu du: “Etsipen sentsazioa agertzen hasi da; badirudi Maragallek ezin duela agindutakoa bete eta Zapatero esandakoak jaten ari dela, hainbat kataluniarri huts eginez”.

MANU ARRILLAGA | BERGARA

“Jendearen jarrera politikoa tinkotzea ekarri du estatutuak”

“Onartu beharra daukat Kataluniako Estatutuaren gai honek neure eguneroko bizitzan ez duela eragin handiegirik izan”, diosku Manuk. “Neure lankide eta lagunekin berriketaldiak izan ditut eta, oro har, iritzi aniztasun nahiko handia dago”.

JARRERA POLITIKOA TINKOTU EGIN DA

“Agian liskar honen aurreko sasietan baino gehiago hitz egiten dugu geure jarrera politikoez, baina, batez ere, lasaitasunez ari gara bizitzen prozesu hau”, gehitu du. Hala baino, azpimarragarria izan liteke oraingo egoera dela medio pertsona bakoitzaren jarrera politikoa, agian, tinkoagoa izatea. (Beti neure inguruz hitz eginda, noski).



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Neure inguruko jendearen –lankideen, lagun...– jarrera politikoa askotarikoa da eta arazorik ez dut eduki. Zarata gehiena, batik bat, politikoen ahotik entzun da; irainak, gaitzespenak eta antzekoak ia eguneroko ikusi ditugu telebistan.

LARRAITZ KORTABARRIA | ARRASATE

“Ez dut estatutoarenganako ardura handirik sumatu”

Bartzelonan ikasten dihardu Larraitz Kortabarriak eta ikaskideen artean ez du sumatu estatutu berriarenganako ardura handiegia dutenik, azaldu digunez. “Arrasateko lagunak galdetzen didate estatutu berriaz hemengo jendeak haren gainean berba egiten duena baino”, esan digu.

Eguneroko bizitzan estatutoaren gaineko kezka handirik ez du sumatu kataluniarren artean: “Agian arlo ekonomikoa da gehien kezkatzen dituenena. Askotan esaten dute Madrili diru gehiegi ematen diotela bueltan jasotzen dituzten onurekin alderatuz”. Hala eta guztiz ere, “kataluniarren aurkako hainbat harribitxi ere entzun izan dira estatuko



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

ahotsen aldetik eta horiekin bai sumatu izan ditut inguruko haserreak. Bestalde, baditut sentimendu nazionalista duten lagunak eta haiek dira gehien berba egiten dutenak gaiaren gainean. Bestalde, estatutuaren erabat aldekoak dira”.

Albiste izango da

OÑATI | BIHAR IZANGO DA, 19:00ETAN

Kirol arloko aditu eta kirolari ezagunak arituko dira kirolaz

Larrain Gain elkartearen 25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, kirolaren gaineko mahai-ingurua antolatu dute biharko. Gaur egun kirolaren egoera zein den izango dute hizpide hizlariek. Orbea txirrindulari taldeko zuzendari Jon Odriozola, Aitor Elkorro pilotaria, Gipuzkoako futbol federakuntzako lehendakari Juan Luis Larrea, Javier Clemente futbol entrenatzailea eta Errealeko ordezkarikari Mikel Etxarri arituko dira Larrain Gain elkartearen arratsaldeko 7etatik aurrera. Mahai-ingurua Julen Iriondo GOITBko kirol kazetariak bideratuko du.

DEBAGOIENA | ZABALDU DITUZTE JADA

El Salvadorrerak bidaltzeko diru bilketa egiten hasi dira

Stan hurakanak eragindako kalteei aurre egiteko eta eragina jasan dutenei laguntzeko dirua batzen hasi dira Debagoieneren ere. Oscar Romero Elkartzasun Komitea Bergarako Migel Andueza dominogotar bergararrarekin ari da lanean duela hainbat urte.

Andueza El Salvadorren dago lanean eta hara bidaltzeko dirua batzeko hiru kontu korrante zabaldu ditu Gipuzkoako Elkartzasun Komiteak.

Zabaldu dituzten hiru kontu korranteak honako hauek dira: Kutxa (2101.0001.14.0004048278), Euskadiko Kutxa (3035.0059.81.0590021346) eta Banco Guipuzcoano (0042.0046.08.0100940620).

ARRASATE | GAUR GOGORATUKO DUTE

Pobreziaren kontra kanpaina aurkeztuko du Pobrezia O taldeak

Joan zen astelehenean izan zen pobreziaren kontrako munduko eguna eta hori gogora ekarri, gaur aurkeztu dute pobreziaren kontrako kanpaina Pobrezia Zero Taldekoek. 19:00etan Arrasateko udaletxe aurrealdean elkartuko dira eta udaletxetik pobreziaren kontrako pankarta eskegiko dute. Bitartean, udal ordezkariek, kanpainarekin bat egiteko arrazoiak azalduko dituzte eta egunerako prestatutako manifestua irakurriko du Plataformak. Horrekin batera, www.pobrezacero.org webgunean norberaren atxikimendua erakustea eskatu du plataformak.

Pobrezia Zero Taldea iraila ezker ari da lanean Arrasaten eta hainbat talde eta lagunen laguntasunarekin osatu dute pobreziaren desagerpenaren alde lanean jarduteko taldea.

DEBAGOIENA | EGUAZTEN ETA EGUENEAN

Asteon Bergara eta Arrasatera iritsiko da 18/98+ kaiera ekimena

18/98+ lan taldeak bultzatutako ekimena asteon iritsiko da gure ibarrera. Hori horrela, etzi Bergaran izango da sumario erraldoi horrek eragindako auziei buruzko iritziak, gogoetak eta ekarpenak gehitzeko aukera. 18:30ean, San Martin plazan egongo dira.

Birritan izango da, gainera gurean, kaiera ekimena. Etxidamu Arrasatera joango dira, hain justu ere. Han ere plazan egongo dira 18:30ean.

Hainbat herritatik igaro ondoren, Durango bukatuko da abenduaren 12an, Azoka egunetan.

ARRASATE | BIHAR IZANGO DA, 08:45EAN

Udal ordenantza fiskalak aldatu nahi ditu Arrasateko Udalak

Bihar goizeko udalbatzarrean udal ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena aurkeztuko dute Arrasateko Udaletxean. Horrekin batera, plan ekonomiko-finantzarioa onartzeko proposamena ere aurkeztu du udal taldeak. Proposamen horrekin udal aurrekontuen egonkortasunari buruzko Lege Orokorrek eskatutakoa beteko litzateke.

Bihar egingo duten osoko bilkuran, hiru gai aztertuko dira. Aurreko biez gainera, hirugarren puntuan, 2005eko inbertsioak finantzatzeko, mailegu bat kontratatuzeko proposamena ere egingo du udal taldeak.

Hitzorduak



MARIANO FERRER KAZETARIAK BAKEGINTZAZ BERBA EGINGO DU | Etzi, eguaztena, Bakea gaur eta hemen hitzaldia egingo du Bergaran

San Joxepe elkarteko Bergarako eta Antzuolako erretiratuak 9. Kultura Hamabostaldia egiten ari dira, *Bakea Amets* izenburuarekin. Horren barne, Mariano Ferrer kazetariak hitzaldia *Bakea gaur eta hemen* egingo du etzi, eguaztena, Bergarako Miguel Altuna ikastetxean, 19:30ean.

Horrenbestez bukatuko dira bakegintzaren gaineko hitzaldiak. Ez, ordea, hamabostaldiko ekintzak; hala, ikasleendako lehiaketako sariak banatuko dituzte bihar, martitzena; billar txapelketa jokatu dute hilaren 27an; eta Guggenheim museoa bisitatuko dute hilaren 28an.

ANTZUOLA |

• **Bizkarrezurreko gaitzen inguruko hitzaldia izango da** Bizkarrezurreko gaitzen gaineko berbaldea egingo du Marmier doktoreak egunean, hilak 27, Olanan etxean, 18:30ean.

ARRASATE |

• **Biodantza ikastaroan izena emateko aukera dago** Biodantza ikastaroan izena eman daiteke. Astean behin izaten da Arrasate Yoga Elkartearen, arratsaldean, eguaztenetan eta egubakoitzetan. Biodantzak laguntzen du gorputzaren berezko osasuna zaintzen bakarkako edo taldeko ariketekin. Argibideak, 679 44 12 29 telefono zenbakian.

BERGARA |

• **Bergarako egutegian publizitatea ipintzeko aukera** Bergarako Udala 2006ko egutegia egiten hasi da, eta han publizitatea ipini nahi duten herriko dendari, ostalari, enpresa, talde, ikastetxe eta abarrei dei egiten die. Interesa dutenek Udal Euskara Sailera deitu behar dute (943 77 91 71). Azaroaren 11 da mugaguna.

• **Gizon-emakumeek etxeko lanak ikasteko tailerra** Gizonen eta emakumeen arteko erlaxazioa eta komunikazioa ikasteko lan mota guztiak

ikasteko tailerra egiteko aukera dute. Izena emateko, jo Udal Gizarte Zerbitzu Sailera. Eskolak egunotan hasiko direnez, komeni da lehenbailehen izena ematea. Hamar eskola izango dira, martitzenetan eta eguaztenetan, 18:30etik 20:30era bitarteko ordutegian.

• **1944an jaiotakoek kinto ospakizuna egingo dute** 1944an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 26an Azpeitxin. Lehenengo, 19:00etan, meza entzungo dute Santa Marinaran. Azaroaren 21ean bukatzen da izenemate epea. Horretarako, deitu honako telefonoetara: 943 76 13 61 (M^a Carmen Garitano) edo 943 76 23 70 (Sanchez ile-apaindegia).

• **Leire Agirre eskalatzaileak hitzaldia egingo du egunean** Leire Agirre eskalatzaile azpeitiarrak hitzaldia eta diapositiba emanaldia egingo ditu egunean, hilak 27, Pol-Pol mendizale elkartearen, 19:00etan, Jardun elkartearen antolatuta. Egindako bide gogorrenak azalduko ditu Agirrek.

• **1947an jaiotakoak Errioxara joango dira txangoan** Azaroaren 5ean egingo dute irteera. Txikiteoa, ardo-soto baten bisita gidatua eta bazkaria egingo dituzte. Izena emateko, sartu 47 euro Euskadiko Kutzako kontu baten. Mugaguna da urriaren 29a.

DEBAGOIENA |

• **Gazte abertzaleen nazio kalejirara joateko autobusa** Hainbat gazte abertzaleen nazio kalejira egingo dute datorren zapatuan, hilak 29, Iruñean, Golem zinematik abiatuta, 18:00etan. Hara joateko autobusa antolatu dute debagoiendar guztiendako. Txartelak salgai daude Arrasateko Irati tabernan. 7 euro da, 5 euro langabe eta ikasleendako.

ESKORIATZA |

• **Guraso Eskolako lehenengo saioa dago aste honetan** Guraso Eskolako saioa izango da egunean, hilak 27, kultura etxean, 18:00etan. *Negoziaketa* da izenburua. Aldez aurretik izena eman duten aita-amei dago zuzenduta.

OÑATI |

• **Guraso Eskolan izena emateko epea zabalik dago** Guraso Eskolan izena emateko epea zabalik dago azaroaren 2ra bitartean Udal Prebentzio Sailean. (943 03 77 00 da telefonoa). 10 euro da. *Bullying* fenomenoak, norbere kontrola, eta erlaxazioa eta nerabezaroaurrea landuko dituzte ikasturte honetan. Lehenengo saioa, *bullying*-aren gainekoa, azaroaren 8an, martitzena, egingo dute. Ordutegia izango da 14:45-16:15.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Akats baten zuzenketa

Aurreko asteko alean, 9. orrialdeko albisteetako batean Eskoriatzari zegokion berria Arrasatekoa zela jarri genuen akatsez. Albiste etxebizitza hutsak errentan jartzeko arreta zerbitzua-ren gainekoa zen. Eskoriatzako Udalak horren harira arreta zerbitzua jarri du. Eguaztenetan izango da, 12:00etatik 13:30era udaletxean eta interesa dutenak pasa daitezke handik. Eskoriatzaren da, hortaz, arreta zerbitzua, eta ez, Arrasaten.

• Biribilguneetako apaingarriak

Aspaldi honetan asko dira errepideen egoera salatzen datozki-gun irakurleak. Hurrengo honek ere, antzeko zerbait ekarri digu: biribilguneetako lorategietan jartzen diren lore apaingarriez kezka da. Kontatu digunez, sarri-asko autoz biribilgune batera iristean, ezkerretatik inor datorrekin ikusteko arazoak izaten ditu, biribilguneetako loreek ikuspegia oztopatzen diotela. Arrasateko Kontzezin kalea eta Jokin Zaitegi plazaren artean dagoen bidegurutzea jarri digu adibide legez gure irakurleak: "Eguen goizean bertan, San Andres auzotik nentorrela, Araba etorbidean sartu barik, Zerrajeratik joan guran, bidegurutze horretara heldu orduko ia-ia gelditu egin behar izan nintzen. Nire ezkerretara geratzen den oinezkoen babesgunean lore eder-ederak daude. Ez nengoen ordea loreei begira. Kontua da ezkerretatik etor zitezkeen autoak ikusteko arazoak izan nituela, hain justu lorategiko zuhaixkengatik. Ondo deritot berdeguneak errekupeareari, baina tentu gehiagorekin aritzea eskatuko nieke leku horien zainketaz arduratzen direnei eta lehentasunak behar bezala ezarri ditzatela".

Sarean harrapatuta

Zer egin daiteke auto ilarak konpontzeko?

Goizero-goizero, Arrasateko Epeleko biribil inguruan izugarrizko auto ilarak izaten dira. Hain justu, Elorregiko biribilguneraino iristen dira ilarak. Ondorioz, Oñatitik Bergarara doazen autoak ere bertan pila-

tzen dira. Hala ere, Arrasaterantz doazenek jasan behar dute okerrera. Gai honen gaineko erreportajea egin zuten urriaren 14ko *Goienkaria*-n eta *Goiena.net*-eko eztabaidan iritzi ezberdinak eman dituzte.

GARRAIO PUBLIKOA EZIN DA NEGOZIO IZAN

Gorrik dioen moduan, garraio publikoa da soluzioa. Hala ere, nazkatuta nago agintarien aitzakiak entzuten garraio publikoa ez jartzeko: "orain denek autoan joan nahi dute", "jendea kontzientziatu beharra dago, bestela alperrik". Bitartean, kontzientziatuta gaudenok eta egunero autoa hartzen dugunok lanera autobusean joan ezin. Jarri autobusak behar diren moduan, ez autorik gabeko eguneari bakarrik.

Garraio publikoa ez da izan behar errentagarria. Lehenik eta behin eman zerbitzu ona eta gero ikusiko da errentagarria izan daitekeen edo ez.

Lolo / www.goiena.net

TRANBIA JARRI, EROSOA ETA EKOLOGIKOA DA

Irtenbide onena tranbia eraikitzea izango litzatekeela uste dut. Ez litzateke inbertsio handiegia izango, ingurumenari kalte gutxi egingo lioke eta errepidean auto ilaran gelditu dauden auto-gidariak inbidiak jota ikusiko luke tranbian lasai ederrean egunkaria irakurri edo musika entzunez doan jende multzoa. Horrela, auto-gidariak ere agian tranbia erabiltzen hasiko lirateke.

Igor / www.goiena.net

GARRAIO PUBLIKOA DA SOLUZIOA

Ez al zuten esaten ditxosozko autopistak arazo guztiak konponduko zituela? Soluzioa bakarria da garraio publikoa. Denok joan nahi dugu lanera edo klasera norbere autoan, norbere musikarekin eta norbere aire girotuarekin, baina auto ilarak daudenean kristorenak eta bi esaten ditugu diputazio eta abarren kontura.

Errua gurea da. Kontziente izan bagara, baina pausoa ematea da falta zai-guna. Garraio publiko egokia eta ordutegi zabalekoa jarri, eta arazoa konponduta! Baina, horretarako prest egongo zinateke?

Gorri / www.goiena.net

AUTOPISTAREKIN EZ DA EGOERA KONPONTZEN

Autopistako azkeneko zatia ireki aurretik Bergaratik 15 minutu behar izaten ziren ordu puntuetan Arrasateko sarrerara iristeko. Autopista ireki zutenetik bide zaharretik 15 minutu edo gehiago behar dira eta autopistatik joanez gero ere antzera.

Autopista itxita, beraz, denbora berdina beharko genuke, baina behintzat ez genuke bidesaria ordaindutakoan geratzen zaigun tonto aurpegia edukiko.

Autopista / www.goiena.net

ESKORIATZAKOA PENAGARRIA DA

Penagarria da benetan autopistarena, baina penagarriagoa da Eskoriatzaren egiten ari diren sarraskia. Horretaz ez zarete kezkatu, zuen herritik ez denez pasatzen eta gu soilik 4.000 garen. Ikusten da non dagoen elkartasuna, bakoitzaren zibilborrean.

GARAPEN EREDUA KRITIKAGARRIA DA

Ezin da azpiegitura edo industria baten alde edo kontra egon norberari eragiten dionaren arabera. Eskoriatzako jendea autopistaren kontra omen dago, baina Beasaindik Zumarragara doan autobidearen edota A8 autopistaren aurka al zaudete? Nire ustez garapen ereduak da kritikatu behar dena, osotasunean.

Argi dago errepideen eta AHTaren aldeko apustua egin dutela erakundeek, eta horri egin behar zaio aurka, ez autopistaren edo trenaren aurka egon etxeko ataritik pasatzen zaigunean. Nondik ez da pasatzen autopista? Garapena / www.goiena.net

Halaxe erantzun digute

AHTren inposaketa salatu dute asteburuan. Jaurlaritzak bere jarrera edo proiektua aldatuko du?



MILA ELORTZA | AHT GELDITU! ELKARLANA

Ezker Batua ere sartu da gobernuan, baina inork ez du ezer erabaki. Jaurlaritzak ez du dauka-gun garraio arazoa konpondu nahi; 3 hiriburuen arteko lotura bultzatu nahi du, bat balira bezala agertu munduan. Guk gertutasunaren alde egiten dugu; dau-den trenak hobetu behar dira.



AGURTZANE DIAZ DE URBIDE | ANGIOZARKO AFEKTATUA

Orain arte erakutsi duen jokarea itxiarekin jarraituko du.

Baina behin eta berriz eskatutako eztabaida eta erabakitze-prozesua abian jartzeko momentua dela uste dut. Horretan jarraituko dugu inposatutako AHTren proiektua gelditu arte.



IGNAZIO LAKUNTZA | MANKOMUNITATEKO LEHEND.

Alvaro Ammani, Antzuola bazterbide izatea eskatu genion ibarreko alkateok. Ipiñazarreko ordainleku gainean, Lukubason, garraioari zuzendutako gunea aurreikusten zen. Eskualderako lotura hori izatea oso garrantzitsua litzateke. Amman ez dagoe-nez, ez dakigu zer gertatuko den.



PACO GARCIA | GIPUZKOAKO PSE-KO BATZARKIDEA

Hasteko, azpiegitura horren kompetentzia Espainiako gobernuarena dela argi laga behar da. Dena dela, pentsaezina da, horrelako azpiegitura sendo bat bertan behera lagako dutenik batakin zein besteak. Herriak batzea izan behar dugu helburu eta ez banatzea.

Egunkarietako harribitxiak

AHAZTU EZIN DEN TRAGEDIA

Atzo, 25 urte bete ziren Ortuellako Marcelino Ugalden izandako leherketatik. Sotoan gordeta zegoen gas propanoak sugarrarekin kontaktu egin eta horrek eragindako eztandarengatik 49 haur, bi irakasle eta sukaldaria hil egin ziren. Gas instalakuntzen gainean zegoen lege gabeziak kasua artxibatu zuen.

'Gara'
2005-10-23



Zorroztalea



Blog-blog-blog

Sinestu ezinik nago Lauaxetak zenbat laudorio, zenbat omenaldi jaso dituen. Baina nork irakurri du inoiz Lauaxetaren poema oso bat? Gure herriko hamaika gizon ari dira poetari kantuan. Diskoa ez zait asko gustatu. Agian, oraingo bakarlariak ez zaizkidalako interesgarri egiten. Dena da keinua, planta. Itxura larregi hartuta dago gure kantagintza. Gutxi du senetik, adierazpen zintzotik. Bakarlariena mundu harroa egiten zait, egolatriatik gertu....

'Gaztelumendi.org' | 2005-10-24

kea barik, harrikada harrikadaren gainean izaten da. Eta daturik, argumenturik gabeko iritzia ez da iritzi, aurreiritzi baino. Begira zelako erraza:

"Sinestu ezinik nago euskal blog-lariei zenbat leku ematen zaien, zenbat kasu eta zenbat aipamen egiten zaien. Baina nork irakurri du inoiz blog bateko mezu-segida oso bat? Orain gure herriko hamaika gizon-emakume ari zaizkigu beren bloka jendaurrean, edozein ordenadoretatik irakurtzeko moduan, ipintzen. Banaka batzuk ikusi ditut, gainetik irakurri, ez zaizkit askorik gustatu. Beharbada, gehien iritziak ez zaizkidalako interesgarri egiten. Dena da keinua, dena da planta. Itxura larregi hartuta dago gure blog-gintza. Gutxi du senetik, adierazpen zintzotik. Bloglariena mundu harroa egiten zait, arrotza, egolatriatik gertu...".

Gerardo Markuleta

"Blog" berba berri-berria da, ordenadoreen mundutik etorria, ingelesetik alegia. Niri berba zaharrago bat gogoratzen dit, beharbada letra baten aldea baino ez dutelako: "blok", eskolan erabiltzen genituen koadernoen izena. Eta horixe baino ez bide dira blogak, interneteko sarean zintzilik jarritako koadernoak (egunkari pertsonalak ere esaten zaie). Jabeak "bloglari" du izena, eta nahi dituen testu eta irudiak ezar ditzake bere blok birtualean. Erantzunak ere bidal daitezke, eta blogariak berrerantzun. Edonor izan daiteke bloglari, edonork irakur ditzake blogak, edonork erantzun diezakeie bloglariaren iritziei. Zeinen jatorra, zeinen demokratikoa, zeinen guai den bloglaritza!

Baina. Normalean blog baten inguruan biltzen direnek uste antzekoak izaten dituzte, eta iritzi-tru-

"Edonor izan daiteke blogari, edonork irakur edo idatz ditzake. Zeinen jatorra, demokratikoa, zeinen guai den"

"Normalean blog baten inguruan biltzen direnek uste antzekoak izaten dituzte, eta iritzi-trukea barik, harrikadak"

ASKATASUNA PANTAILARA IRITSI DA

Euskal Herriko Software Libreko Elkarteak (ESLE) argi dauka informatikaren joera programazio askea dela. Dagoeneko 19 enpresek software honek dituen abantailak ezagutarazi nahi dituen elkartearekin bat egin dute. Borroka ez da berria eta mundu osoan egiten ari da. Azken batean, programazioa ulertzeko bi filosofia daude aurrez urre: software pribatiboa eta librea. Lehenak

erabiltzen dituen lizentzien truke ordaindu beharra dago, eta erabiltzaileari hainbat muga ezartzen dizkio. Libreak, aldiz, ez. ESLEren helburuetako bat da negozioan dauden enpresen eta administrazio publikoen arteko zubi lana egitea. Administrazioek gaiaz badute kezka: 2003an Legebiltzarrak onartu zuen software librearen aldeko legez besteko proposamen bat.

Berria'
2005-10-23



Tira, tira...



Berria 'Martintxo' | 2005-X-23

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

TESTUA ZIG-ZAGEAN

EAJk "biolentziaren amaiera dialogatua eta normalizazio politikoa" finkatzen dituen dokumentuak elementu positiboak eta (...) ez horren argiak ere baditu. Dena den, testuaren indefinizioen gainetik, komeni da geratzea jeltzaleek duten borondatearekin kanporatze eta betorik gabeko foro ez instituzional baten parte hartzeko.

Editoriala
2005-10-23

'Deia'

BAKEGINTZA ETA NORMALIZAZIOA

Hala esan duelako herritarren gehiengoak, euskaldunek hartzen dituzten erabakiak subiranoak izango dira, zaintza armaturik gabek. Era berean, espetxe politikaren gehiegikeriek ez dute justifikaziorik biolentziaren existentzian. Ez da adiskidetzarik egongo ez badira presoen zein biktimen senitartekoak kontuan hartzen.

Editoriala
2005-10-23

'Berria'

BARNE OREKA PROZESUAREN ATARIAN

Oraingo agirian, burujabetza partekatua desagertu egin da eta erabaki eskubidea era autonomoan agertzen da, eskubide demokratiko gisa. Erabaki eskubideaz hitz egitean, ez du planteatzen akordio bat eskubide horren definizio edo formulazioari buruz, baizik eta eskubide horren aitortza eta baliatzeari buruz.

Pello Urzelai
2005-10-23

'El Mundo'

ESTATUTOARI MOZKETAK

Negoiaziorako erreferentzia gisa erabili-ko duten testua gaur egungo Estatutua izateak -eta ez Maragallek eta Masek lagundu dutena, iradokitzen du bai Gobernuak bai PSC kontziente direla Kataluniako parlamentuak igorritako zorakeria erabat onartezina dela: misila Konstituzioaren flotazio linean.

Editoriala
2005-10-23

KIROLA

- Muñarri Alkesako mutilen laugarren garaipena lortu dute, segidan | 19
- Ritxar Fernandez 2. sailkatu da Donibane Lohizune-Hondarribia proban | 21



Ekaitz Osa
korrikalari
oñatiarrarekin
jardun dugu azken
emaitzetaz | 21

FUTBOLEKO PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

ALOÑA MENDI

5-0

IRUN 1902

Aloña Mendi | Elgarresta, Olalde, Igartua, Lopez, Arregi I, Barrena (Losada 87. min.), Idigoras (Maiztegi 64. min.), Xabier (Astigarraga 87. min.), Aramendi (Arregi II 53. min.), Moiu (Sanchez 53. min.) eta Astola.

Irun 1902 | Rico, Mayoral, David, Estebez, Perez, Alberto (Telletxea 70. min.), Gomez (Lucio 56. min.), Salas, Javi, San Martins eta Lolo (Ander 85. min.).

Golak: | 1-0 Moiu, 2-0 Idigoras, 3-0 Aramendi, 4-0 Sanchez eta 5-0 Arregi II.

Epailea | Fuentes. Ez zituen laguntzaile onak izan. Irun taldeko 3 jokalarikaleratu zituen.

Bestelakoak | Zale asko hurbildu ziren Azkoagainera partidua ikustera eta azkenean denak pozik atera ziren.

Bikain

Taldea

Astean egindako lanaren ordaina ikusi ahal izan genuen Azkoagainen. Taldea indartsu dago eta jarrera oso ona erakutsi zuten Aitor Oruetaren mutilek domekan

Kaskar

Irungoen jarrera

Irungo jokalariek galtzen ez dakitela erakutsi zuten. Epaileak taldea jokalarik gutxiagorekin utzi zuenetik, borroka bila ibili ziren momentu oro. Azkenean 8 jokalarirekin bukatu zuten

Esandakoak

“Astean zehar eginiko lanaren ordaina izan da partidua. Taldeak gogor entrenatzen du eta hori zelaian ikusi egiten da”.

AITOR ORUETA |
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

“Preferenteko partidua ez dira samurrak izaten, baina gaur nahiko erraz irabazi dugu. Taldea ondo ikusi dut, gogoz”.

UNAI ARREGI |
ALOÑAKO JOKALARIA



AITOR LIZARRALDE

Aloñako jokalariek partidua amaitu arte borrokatu zuten.

FUTBOLA | ALOÑAK SAMUR IRABAZI ZUEN

Gol festa ikusi ahal izan genuen Azkogainen; 5-0

Etxeko taldea ondo kokatuta zelairatu zen. Baloia ongi mugitu zuten zelai erdian eta ez zuten batere arazorik izan atzealdean

Arantzazu Ezkibel

Aloñak 5 gol sartu zizkion domeka arratsaldean Irungo taldeari. Oñatiarrek partidu ona jokatu zuten eta ez zuten arazorik izan Elgarrestaren atean.

Taldea zelai erdian ongi kokatuta zelairatu zen. Baloia ongi mugitu zuten alde batetik bestera eta Irungoen atera arrisku handiarekin heltzen ziren.

Lehenengo zatiko 20. minutuan, Unai Moiuak 1-0ko gola sartu zuen. Minutu gutxi barru,

Irungoek jokoz kanpoko jokaldi batean gola egitea lortu zuten, baina epaileak ez zuen gola ontzat eman. Irungo jokalariek ez zuten ados, eta protesta egiteagatik epaileak jokalarikaleratu egin zuen.

ALOÑA BAT GEHIAGOREKIN

Aloñak aukera hau aprobetxatu zuen eta 33. minutuan Robertok bigarren gola sartu zuen. Hirugarrena ere berehala iritsi zen; Aramendik egin zuen. Atsedenera, beraz, Aloña 3 goleko alde-

arekin iritsi zen. Partidua erabakita zegoen.

Bigarren zatian Aloña indar berarekin atera zen zelaira. Partidua irabazita zuten arren, ez ziren lasaitu eta beste bi gol sartzea lor-

tu zuten. Aipatzekoa da Aloñako jokalariek erakutsi zuten jarrera. Markagailuan aurretik joan arren partidua amaitu arte zuten guztia eman zuten jokalarik oñatiarrek. Zelaian gogotsu aritu ziren eta baloi guztiak borrokatu zituzten.

Partiduko 67. minutuan, Mikel Sanchezek laugarren gola sartu zuen eta 80. minutuan Iñigo Arregik bosgarren eta azkeneko gola egin zuen atzetik hasitako jokaldi polit baten.

IRUNGOEN JARRERA

Irungo jokalariek galtzen ez dakitela erakutsi zuten. Epailearen erabaki guztiakin euren desadostasuna erakutsi zuten eta azkenean 3 jokalarik gutxiagorekin amaitu zuten partidua. Egoera horrek Aloñaren garaipena belztu zuen.

Aloñako jokalariek partidua amaitu arte guztia eman zuten zelaian

Protestatzeagatik epaileak bi jokalarikaleratu zituen eta beste bat falta gogor bategatik

PREFERENTE MAILA



AITOR LIZARRALDE

Iker Oruetak egin zuen Aretxabaletako taldearen lehengo gola.

Aretxabaletarrak gora doaz pixkanaka sailkapenean

UDA
3-0
ZESTOA

UDA | Gaizka, Raul, Jon, Unai, Jon Unamuno, Igor Arenaza, Iker Orueta, Haritz Igartua (Hegoi Arrieta, 21. min.), Igor Arriaga (Juan Nuñez), Erik Garcia eta Espinosa (Endika Cocho).

Zestoa | Unanue (Hector Aranguren, 38. min.), Aimar Ugarte, Ander Etxeberria, Xabier Elorza, Ibon Aldalur, Jagoba Zubimendi, Igor Eizaguirre, Jon Etxeberria, Aritz Iriarte, Gorka Allerru eta Igor Quinds.

Golak: 1-0, Iker Orueta (29. min.), 2-0, Juan Nuñez (88. min.), 3-0, Endika Cocho (89. min.).

Epailea: Pedro Silguero jauna.

Asteleheneko Goienkaria

Ibarran pozik dira asteburu honetan lortutako emaitzarekin. Zestoak ez zuen Gaizkaren atea zultzea lortu. Aretxabaletarrek, ordea, hiru aldiz bidali zuten baloia aurkariaren sareetara.

Iker Orueta izan zen gola egiten lehenengoak. Zelai erditik baloia bidali zioten eta bakarrak egin zien aurre Zestoako bizpahiru defentsari. Denak gainditu eta ostikada batez ate barrura joan zen baloia.

Lehenengo zatian ez zen gol gehiagorik ikusi. Zorritzarrez albiste txarrik ere izan zen lehen minutu hauetan, Haritz Igartua besoetan atera zuten zelaitik ezker hankan kolpe gogor bat jaso ondoren.

AMAIERAN BI GOL

Norgehiagokaren bigarren zatian Zestoakoek gogor jokatu zuten etxeko taldearen area behin eta berriz presionatuz. Hobeto jokatu zuten. Baloia kontrolatu zuten eta jokoa ere bai.

Aretxabaletakoek, ordea, baloia asko galdu zituzten bigarren zati honetan. Felix Recio bi jokalarialdatu zituen orduan eta Juan Nuñez zein Endika Cocho irten ziren zelaira.

Erabaki ona izan zen inongo zalantzarik gabe, izan ere, bi jokalarik hauek egin zituzten UDArendako azkenengo bi golak. Nuñezek egin zuen bi eta batekoa amaierarako bi minutu falta zirenean. Endikak berehala egin zuen hirugarrena eta azkena.

Itxura ona eman zuen Mondrak Pasaiaren zelaian

PASAI
2-2
MONDRA

naldira joan baino lehen bigarren gola egin zuen-eta Sergiok etxeko taldearendako.

BIGARRIN ZATIAN HOBETO

Atsedendialdiaren ostean hobeto aritu zen Mondra. Erritmoa handitu zuten eta aukera bat baino gehiago sortu zituzten. Iker Lopezek egin zuen Mondraren berdin-ketaren gola.

Norgehiagoka oso borrokatua izan zen eta futbol maila ona erakutsi zuten bi taldeek. Mondrak berdinketa lortu zuen oraindik gainditu gabeko Pasaiaren zelaian.

A.G.

Pasaitarrek sartu zuten lehen gola baina laster iritsi zen Arrasateko taldearena. Ekainek berdindu zuen. Gutxi iraun zuen lasaitasunak Mondrakoendako. Atsed-

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK	Puntuak	SAILKAPENA					
		J	I	G	B	GA	GK
UDA-Zestoa	3-0						
Touring-Allerru	2-1						
Pasaia-Mondra	2-2						
Orioko-Berio	3-1						
Aloña Mendi-Irun 1902	5-0						
Idiazabal-Anaitasuna	0-1						
Beti Gazte-Hondarribia	4-0						
Mutriku-Trintxerpe	3-1						
Ordizia-Hernani	2-0						
Real Union-Zarautz	3-2						
HURRENGOAK							
Zestoa-Real Union							
Allerru-UDA							
Mondra-Touring							
Berio-Pasaia							
Irun 1902-Orioko							
Anaitasuna-Aloña Mendi							
Hondarribia-Idiazabal							
Trintxerpe-Beti Gazte							
Hernani-Mutriku							
Zarautz-Ordizia							

1. erregionala

Bergarak arazorik gabe gainditu zuen Aurrera

AURRERA
0-3
BERGARA

Arantzazu Ezkibel

Bergarak samur ekarri zituen hiru puntuak Ondarroatik. Zapatu arratsaldean 0-3 irabazi zion Aurrera taldeari etxean.

Partidu ona jokatu zuen talde mahoneroak Ondarroakoan

zelaian. Lehenengo zatian ondo ibili ziren Josuren mutilak. Atzealdean ez zuten arazorik izan eta baloia ongi mugitu zuten zelaian alde batetik bestera. Hala ere, lehenengo gola egitea kosta egin zitzaion. Lehenengo zatia bukatzean zela egin zuen Davidek aurreneko gola. Beraz, bergararrak abantailaz joan ziren atsedenera.

DEFENTSAN BIKAIN IBILI ZIREN

Bigarren zatian taldea indartsu atera zen zelaira. 15. minutuan, Andoni Rodriguezek bigarren gola sartu zuen. Partidua alde

zutela, bergararrek lasai jokatu zuten. Zelai erdian jokoa ongi banatu zuten eta aurkariaren atera ongi iritsi ziren. Bigarren zatiko 25. minutuan, Imanolek hirugarren eta azken gola egin zuen.

Partidua erabakita zegoela, Bergararen aldeko penaltia adierazi zuen epaileak, baina mahoneroek huts egin zuten.

Azkenean, 0-3 nagusitu zen Bergara eta Ondarroatik hiru puntu ekarri zituzten. Dagoeneko 13 puntu ditu Bergarak eta sailkapenean goiko postuetan da. Datorren astean Legazpiren aurka neurtu beharko ditu indarrak.

Emakumezkoen Liga



AITOR LIZARRALDE

MONDRAK ETA BERGARAK BERDINDU EGINDUTE

Mondrak aukera gehiago sortu zituen baina emaitza berdinketarena da gol bana egin zuen-eta talde bakoitzak. Atxabalpen jokaturako neurketan ez zen golik ikusi lehenengo zatian. Atsedendialdiaren ostean etxekoak aurreratu ziren markagailuan. Estik egin zuen Mondraren gola. Bergarak berdintzea lortu zuen neurketa amaitu baino lehen.

Eskola kirola

OÑATI

Ikasturte bukaera arte 380 gaztek jardungo dute eskola kirolean

Benjamin, alebin eta infantil mailetan banatuta jokatzeko dute gaztetxoek

Kiroldegian ordu berean hiru partidu ikusteko aukera izan genuen zapatuan

Areto futbolean aritu ziren hirugarren eta laugarren mailako gaztetxoak

Geaxi Ezpeleta

Asteburu honetan ere eskola kirola ikusteko aukera ugari izan ditugu ibarrean. Bergara eta Leintz bailara aurrez bisitatu genituenez, azken honetan Oñatira hurreratu gara. Han areto futboleko lehen ari ziren benjamin mailako gaztetxoak ikusi genituen. Neska-mutiko alaiak inondik inora ere eta jokalarixaloak.

Nesken partiduan Erbiak eta Katuak taldeak ari ziren jo eta ke. Hamar minutuko lau zati jokatzeko zituenez, gaztetxo guztiek jokatu ahal izateko txandak egiten aritu ziren entrenatzaileak buru-belarri.

Bata bestearen lagun eta galtzeari garrantzi handiegia eman gabe aritu ziren neskatoak. Benetan partidu polita izan zen.

Mutikoak ere indartsu ikusi genituen. Agian neskak baino abilezia gehiagorekin, gehien-goek gehien egiten duten kirola baita.

KONPETIBITATETIK AREAGOKO BALOREAK

Joxean Larrea Oñatiko koordinatzaileak esan digunez eskola kirolaren bitartez gaztetxoei areiotasunaz gairako baloreak irakatsi nahi dizkiete. Neska-mutilek, laguntasuna, konpromisoa eta ahalegina emaitzen gaitetik baloratzea da helburua.



GEAXI EZPELETA

Aratz. Iñigo, Unai, Asier, Peio, Xabier, Mikel, Jon B., Julen, Jon C., Iñaki eta Josu.



GEAXI EZPELETA

Katuak. Amaur M., Amaur G., Nagore Z., Nagore A., Maider, Ainhoa, Oihana eta Oihane.



GEAXI EZPELETA

Erbiak. Marta, Ainara, Mireia, Zuriñe, Helen, Miren eta Elene dira Erbiak taldeko kideak.



GEAXI EZPELETA

Aloña. Unai G., Ander, Iñigo B., Asier, Jon Z., Jon E., Aitor, Xabier, Unai B., Jokin, Iñigo V. eta Beñat.

• ATAL HONETATIK ARGAZKIAK DITUZTE GOGOKOEN NESKA-MUTIKOK



AINARA ETA ELENE | ERBIAK

“Gure argazkiak ikustea dugu gogokoan atal honetatik. Beste herrietan eskola kirolean jokatzeko duten argazkiak ikustea ere gustuko dugu”.



IÑIGO ETA IÑAKI | ARATZ

“Hartzen dugu Asteleheneko Goienkaria etxean eta eskola kirolaren atala beti begiratzen dugu. Gogoko dugu begirada bat ematea”.



AMAIUR G., AMAIUR M. ETA NAGORA | KATUAK

“Gogoko dugu atal hori. Eta bertatik gehien gustatzen zaizkigunak argazkiak dira. Gainera, oraingoan gu agertuta ziur gehiago gustatuko zaizkigula”.



AITOR, BEÑAT, JOKIN ETA IÑIGO | ALOÑA

“Asko gustatzen zaigu atal hori. Uste dugu edozeinek duela gogoko bere burua prentsa-ko argazkietan ikustea. Guk ere nahi dugu bertan agertu inguruko denei erakusteko”.

Pilota

• LAU T'ERDIKO TXAPELKETA



AITOR LIZARRALDE

Bengoetxea VI.ak ez zuen frontoiko publikoa bere alde, baina horrek eragin txikia izan zuen bere gain.

Oinatz Bengoetxeak Imanol Agirre kanporatu zuen atzo

Lau t'erdiko txapelketan Irujo kanporatu zuen Imanol Agirrek 19-22 galdu zuen atzo Bengoetxea VI.aren aurka

Larraitx Zeberio

Frontoian Imanol Agirre zen publikoaren faboritua baina gaizki hasi zen bizkaitarra. Bengoetxeak zuen satea eta lehenengo bi tantoak berak egin zituen.

Eutsi egin zion Agirrek eta hiru tantora berdintzea lortu zuen, baina hortik aurrera Leitzako aurrelaria hobeto aritu zen. Zortzi tanto egin zituen jarraian markagailua 3-11 utziz.

Ikusmina handia zen Bergaran eta tanto politikak ikusteko aukera egon zen pilotalekuan. Imanol Agirrek, ordea, ez zuen

publikoak nahi bezain ondo jokatu eta Bengoetxea VI.a hazi egin zen kantxan. Tarteka tanto bat irabazi eta satea berreskuratzen zuen Agirrek, baina laster galtzen zuen. Oinatz Bengoetxea alde handitzen joan zen eta hamar tantoko tartea lortu zuen.

Bengoetxea VI.ak 5 tanto egin zituen sakez eta 7, berriz, dejadaz

AGIRREAREN AZKEN AHALEGINEAN

Neurketaren bigarren zatian erreakzionatu zuen Agirrek. 20-10 galtzen zihoala satea berreskuratu eta sei tanto egin zituen jarraian. Publikoa behin baino gehiagotan zutitu zen frontoian.

Oinatzen dejada baten ondoretik beste hiru tanto egin zituen jarraian Bizkaikoak baina horiek izan ziren azkenak. Hogeigarren tantoa dejada bidez egiten saiatu zen, baina gaizki atera zitzaion eta Bengoetxea VI.ak ez zuen barkatu. Leitzarrak jarraituko du, beraz, lau t'erdikoan.

• ELGETAN OMENALDIA HONDARRIBIKO ARRAUNLARIEI

INTXORTA ELKARTEKO BALKOIAN JARRI ZUTEN KONTXAKO BANDERA

Eguerdiko 12:00ak ziren Hondarribia arraun elkarteko 40 lagunak Elgetako herriko plazan sartu zirenean. Txaranga eta guzti sartu ziren Kontxako bandera ondoan zutela. Plazan aurrekuia dantzatu zitzaizen eta udaletxean harreara egin zion Patxi Basauri alkateak. Soka tiran egin zuten ondoren eta Espaloia kafe antzokian Kontxako bigarren estropada polemikoari buruzko adierazpenak eman zituzten. "Omenaldia asko jaso ditugu aurten", esan zuen Josemi Elduairen presidentek, "baina gaurko hau oso berezia da ezberdina delako guztiz". Intxorta elkartean bazkaldu zuten elgetako hainbat zalerekin.



AITOR LIZARRALDE

• LEHENENGO NAZIONALA



AITOR LIZARRALDE

ASPALDIKO PARTIDURIK TXARRENA

Etxean jokaturako aspaldiko partidurik txarrenean, Eskoriatzak 3-7 galdu zuen Beti Arinen aurka. Eskoriatzako taldeak etxean partidu onak jokatu ohi ditu, baina zapatuan defentsan oso txar ibili ziren eta 7 gol jaso zituzten. Aurrealdean ere ez zuten aukera askorik sortu Inakiren mutilek. Hala, Eskoriatza taulako beheko postuetara begira dago eta animu aldetik ez daude onenean.

• GAZTEAK



AITOR LIZARRALDE

ALOÑAK GUTXIGATIK GALDU ZUEN

Aloñak ligako bigarren partidua galdu zuen 6-7 Bilboko Berri Otxoa taldearen aurka. Taldeak hobekuntza nabarmena erakutsi zuen Zubikoan. Defentsan oso ondo aritu ziren oñatiarrak; aipatzekoa da Mikel eta Julenen lana. Aurrealdera ere ondo igo ziren Aloñako jokalariek baina jaurtiketetan huts ugari egin zituzten.

• SENIOR MAILAKO ERRUGBIA



AITOR LIZARRALDE

ARRASATEK ETA ELORRIOK BERDINDU EGIN ZUTEN

Partidu borrokatua izan zen. Bigarren zatian euriak zelaia lokaztu zuen eta jokoa nabarmen gogortu zen orduan. Elorrikoak jarri ziren lehenengo aurretik, 5-0. Arrasatearrek laster erreakzionatu zuten eta 13-5 emaitzaz nagusi ziren. Azken unean entsegua egin zuten Elorrikoak eta beste ostikada batez beste hiru puntu lortu.

• LEHENENGO TERRITORIAL MAILA

Derby berdindua jokatu zuten Aloñak eta Arrasatek

Zale asko hurbildu ziren Zubikoara eta giro bikaina sortu zuten harmailetan



Aloñari gol gehienak erditik sartu zizkioten.

AITOR LIZARRALDE

ALOÑA MENDI
25-25
FORD MUGARRI

Aloña | Zurutuza, Galarza, Arregi (2), Pata (3), Bernal (5), Zulueta (2), Garcia (10), Berrocal, Azkarate (1), Agiriano (2) eta Lopez.

Arrasate | Egaña, Valle, Eskibel (2), Eneko Garcia, Aitor Garcia (3), Ortiz, Muriillo, Lanbide (5), Calleja (4), Alzelai, Isasmendi (7), Otegi (4) eta Carrasco.

Golak: Lehenengo zatian 12-13.

Arantzazu Ezkibel

Aloñak eta Arrasatek derby bizia jokatu zuten Zubikoa kiroldegian domeka goizean.

Partidua oso berdindua izan zen. Bi taldeak gogotsu kantxaratu ziren, derbya irabazteko amorratzen. Arrasatekoek talde beteranoagoa dute eta kantxan hori asko nabaritu zen.

Lehenengo zatiaren amaieran 12-13 zihon aurretik Arrasateko taldea. Gol bateko abantailaz ibili ziren ia partidu guztian. Arrasateko taldea sendo aritu zen defentsan. Ez zuten hutsunerik utzi eta Aloñakoei kostatzen zitzaizkien golak egitea. Aipatzekoa da baita ere, Arrasateko atezainak jokatu zuten partidua. Oso ondo aritu zen

atearen azpian eta gol aukera asko geratu zituen.

GOLAK ERDITIK ETORRI ZIREN

Oñatiarrek defentsan huts egin zuten. Ia gol guztiak erditik sartu zizkioten Iñigo Aranbururen mutilei. Aurrealdean ere, aukera garbiak huts egin zituzten. Hala ere, azken momentuan partidua berdintzea lortu zuten.

Momentu batez, Arrasateko taldea 3 jokalarirekin aritu zen baina Aloñak ez zuen jakin izan aukera hau aprobetxatzen markagailuan aurretik jartzeko.

Derbya, beraz, berdinketarekin amaitu zen. Giro bikaina sortu zen Oñatiko kiroldegian. Arrasateko zale asko gerturatu ziren eta bi taldeetako zaleek asko animatu zuten.

• BIGARREN TERRITORIALA

Berdinketarekin konformatu behar izan zuten Arrasate taldeak

ARRASATE
29-29
TOLOSA

A.G.

Arrasateko mutilak asmatu ezinik ibili ziren neurketaren lehen zatian, baina atsedendaldia ondotik asko hobetu zuten tolosarren aurkako jokoan.

Lehenengo zatian atzetik joan baziren, bigarreanean nagusi izan ziren eta gogorra egin zitzaizkien, azkenean, berdinketarekin konformatu behar izatea.

GORA EGIN ZUEN TALDEAK

Makal hasi ziren Arrasatekoak. Lehenengo zatiaren amaieran berdintzea lortu bazuten ere, atzetik joan ziren lehenengo 30 minutuetan. Tolosarrek joko hobea erakutsi zuten. Gol gutxi sartu zituzten bai talde batek zein besteak. 13-13 berdinduta amaitu zuten.

Neurketaren bigarren zatian beste itxura bat eman zuten Arrasatek. Lehenak izan ziren gola sartzen eta bi egin zituzten jarraian. Ondo aritu ziren erasoan zein defentsan. Ekaitz atezainaren lana ona izan zen.

Lau goleko tartea zabaltzea lortu zuten. Tentsioa handitu egin zen eta bi taldeetako jokalarien artean tira-birak izan ziren. Epailak bi arrasatear eta tolosar bat bota zituen kalera. Azken minutuan egin zituen Tolosak berdintzeko behar zituen bi golak.

• GAZTEAK



AITOR LIZARRALDE

BERGARAK ARAZO GABE GAINDITU ZUEN LEITZARAN

Bergarak 35-15 irabazi zion zapatu arratsaldean Andoaingo Leizaran taldeari etxean. Bergararrek ez zuten inongo arazorik izan partidua aurrera ateratzeko eta samur eskuratu zituzten bi puntuak. Defentsan oso ondo aritu ziren bergararrak. Ez zuten hutsunerik utzi eta baloi asko lapurtzea lortu zuten. Honek erasora ateratzeko balio izan zion talde mahoneroari. Leizaranek indar gabeko taldea kantxaratu zuen. Erasoa ez zuten aukerak ondo aprobetxatzen jakin eta baloia askotan galdu zuten aurrealdean.

• GAZTEAK



AITOR LIZARRALDE

ALOÑAK 22-17 IRABAZI ZUEN

Aloñak etxean Urolaren aurka 22-17 irabazi zuen zapatu arratsaldean jokatuak partiduan. Oñatiko taldea gogotsu aritu zen garaiaren bila. Partidua polita izan zen; bi taldeak joko gogorra erakutsi zuten-eta. Aloñak eraso bizkorra egin zuen eta zulo asko aurkitu zituen Urolaren defentsan. Defentsan ere, ondo ibili ziren Mantxolaren mutilak. Etxeko partiduetan ondo ibili ohi dira Aloñako mutilak eta oraingoan ere ez zuten hutsik egin. Aipatzeko da, Aloñako taldean, Letek eginiko lan bikaina.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN TERRITORIALA

Bergara	Atsedena
Arrikruz - Ford Mugarri	25-25

BIGARREN TERRITORIALA

Arrasate - Tolosa	29-29
-------------------	-------

GAZTE MUTILAK

Gatz Museoa Jakion	Atsedena
Aloña Mendi - Urola	22-17
Bergara - Leizaran	35-15

GAZTE NESKAK

Arrasate - Aiala Zarautz	02-32
--------------------------	-------

KADETE MUTILAK

Donibane - Aloña Mendi	21-23
Gatz Museoa Jakion	Atsedena

KADETE NESKAK

Verkol Aloña - Pulpo	17-11
----------------------	-------

• LEHENENGO MAILA

Gauzak bere onera itzuli ziren azkenik

Markagailuan 16 puntuko aldea izan zuten etxekoek, baina lasaitu egin ziren eta nafarrek berdintzea lortu zuten 3. laurdenean

MUGARRI ALKESA
89-82
VALSAY ALKOI

Mugarri Alkesa | Gamarra (24), Domingo, Mallabiabarrena (12), Mikel Biain (7), Barberena, Herzog, Kintana (14), Hernandez, Alarcia (14), Aranburu (2), Iñigo Biain (16) eta Isasa.

Valsay Alkoi | Diez (8), Uriz J. (28), Arbellu (5), Baigorri (16), Janies (9), Uriz M. (2), Ventoso (11), Irisarri (3) eta Embid.

Golak: Lehenengo laurdenean 26-21. Bigarren laurdenean 50-37. Hirugarren laurdenean 67-60. Laugarren laurdenean 89-82.

Larraitz Zeberio

Lehenengo mailan ez dago partidurazirik, baina Nafarroako Valsay Ardoi taldeak ez zuten aurrerorik zail horietakoa ematen. Gauzak, ordea, korapilatu egin zitzaizkien Mugarri Alkesako mutilei eta azken bi laurdenetan izerdi mordo botata behar izan zuten garaipena ziurtatzeko.

HASIERAN LASAI

Mugarri Alkesako Iñigo Biain izan zen baloia saskiratzen lehen eta etxekoek 6 puntu egin zituzten nafarrek lehen aldiz saskiratu baino lehen.

Ohikoa duten joko ona egin zuten Gorka Zurutuzaren mutilek lehen bi laurdenetan. Erreboteetan txukun aritu ziren eta erasoan ere gauza politak egin zituzten. Sarri sortu ziren markatu gabeko jokalariei baloia pasatzeko aukerak eta nahiko ondo ibili ziren saskiratzeetan.

Lehen bi laurdenetan behin bakarrik jarri ziren nafarrak aurretik markagailuan. Hiruko saskiratzeak ere asko izan ziren, sei lehen bi laurdenetan. Gamarrak hiru egin zituen eta Quintana, Alarcia eta Mikel Biainek bana. Atsedenaldirako, 13 puntuko tarte zuten alde etxekoek.

LARRI AMAIERAN

Azken bi laurdenetan norgehiagokak oso bestelako norabidea hartu zuten eta taldean zein Iturripeko harmailetan urduritasuna nagusitu zen. Valsay Ardoi taldeko jokalariek indar-



AITOR LIZARRALDE

Alarcia ondo aritu zen taldearen jokoa antolatzen.

tsu hasi ziren eta erasoan joko ausarta erakutsi zuten. Azkarrogo jokatu zuten, baloia gehiagor mugituz. Ondo aritu ziren baloi lapurretan eta hiruko saskiratzeetan. Azken laurdenaren erdialdera 69 puntutara berdintzea lortu zuten. Handik gutxira gaitetik ziren 69-71. Tentsioa handituz joan zen Iturripen. Arrasateko taldea ezezagun zegoen. Baloiak galdu, hutsegi-

teak saskiratzeetan... Zorionez bere onera etorri ziren gauzak eta miraria balitz moduan berriz ere hiruko saskiratzeak egiten hasi ziren.

Ohiko jokora itzuli ziren berriz ere eta nafarrek behera egin zuten. Atzean gelditu zen partiduko momentu txarra. "Gehiegi lasaitu gara", esan zuen Zurutuzak amaieran. "Hori gertatu da".

Aloñak gutxigatik galdu zuten etxean

ALOÑA MENDI
58-59
INGENIERIA

Aloña Mendi | Goitia, Madariaga (6), Otamendi (16), Arregi (6), Zabaleta (19), Anduaga (3), Blanco (6), Gorostiaga, Garcia, Anton, Mendiola (2) eta Madinabertia.

Ingenieria | Matas (9), Alzaga (8), Duro (8), Añorga, Delgado, Etxeberria (7), Venegas (2), Villegas eta Eceizabarrena (19).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdenean 15-17. Bigarren laurdenean 28-36. Hirugarren laurdenean 38-44. Laugarren laurdenean 58-59.

Arantzazu Ezkibel

Aloñak azken minutuan galdu zituen 2 puntuak. Oñatiarrek 58-59 galdu zuten Ingenieria taldearen aurka.

Aloñak joko eta jarrera ona erakutsi zituen zapatu arratsaldean Zubikoa kiroldegian. 1. zatian kostatu egin zitzaizkien oñatiarrei partiduari neurria hartzea. Defentsa ez zen fin aritu eta lehen zatian 36 puntu jaso zituzten. Erasoan azkar mugitu zuten baloia baina aukera garbi batzuk huts egin zituzten.

Bigarren zatian taldea guztiz indartuta atera zen. Aloñak irabaztea gura zuten eta jokalariek jarrera oso ona izan zen.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Bigarren zatian Aloñak erasoan baloia ongi mugitu zuten.

ESPASIOA ERATU ZUTEN

Defentsa oso ona egin zuten Aloñako mutilek. Baloi asko errekupeatu zituzten eta markagailuan nabaritu egin zen; 23 puntu bakarrik jaso zituzten.

Kontraerasoan azkar atera ziren oñatiarrek eta baloia ongi mugitu zuten, tarte asko eratuz. Hala ere, ezin izan zioten markagailuari buelta eman eta azkenean puntu bategatik galdu zuten.

• NESKAK

Joko ona egin arren, berriro ere galdu zuten Eskoriatzak

FONSECA
62-51
ESKORIATZA

Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzako neskek ezin izan zuten lehen garaipena eskuratu zapatu arratsaldean.

Joko ona egin zuten arren, 11 puntuko aldeagatik galdu zuten Javi Corbalen neskek. Lehenengo bi laurdenetan etxeko taldea markagailuan aurrera joan zen. Eskoriatzarrak 20 puntu atzetik ziren. Hala ere, ez zuten amore eman eta azken laurdenean markagailuari itxura hobea ematea lortu zuten.

BANAKAKO DEFENTSA

Eskoriatzako neskek defentsan ondo aritu ziren. Banakako defentsa jokatu zuten eta baloi batzuk lapurtzea lortu zuten.

Iruñeko taldeak kanpoko jokoa egin zuen batik bat. Jaurtiketa asko area kanpotik bota zituzten eta triple asko sartu zituzten. Eskoriatzakoei berriz, horrek hutsegini zien. Jaurtiketetan akats asko egin zuten eta modu horretan puntu asko galdu zituzten.

Joko aldetik partidua nahiko berdindua izan zen arren, azkenean bi puntuak etxean geratu ziren eta eskoriatzarrak esku hutsik bueltatu ziren. Javi Corbalen taldeak oraindik ez du partidua bakar irabazi. Hala ere, animu aldetik gogotsu daude eta datorren partidurako prest.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA
Mugarri Alkesa - Valsay Ardoi 89-82

NESKEN BIGARREN MAILA
Fonseca - Eskoriatza 51-62

SENIOR MUTILAK
Oiarso-Candy 30-76
Aloña-Mendi - G. Arana Ing. 58-59

SENIOR NESKAK
Añorga - Aloña-Mendi 71-34

GAZTE MUTILAK
Atc. Sn. Larrun - Mugarri Alkesa 61-44
Araneta - La Salle 46-57
Take-Zarautz - Añña-Mendi 70-47

GAZTE NESKAK
Eskoriatza - Zarautz 40-56
Oiarso - Aloña-Mendi 22-21

KADETE MUTILAK
Mugarri Alkesa - Ordizia 45-60
Lacor - Aloña-Mendi 47-42

KADETE NESKAK
Cafes Aitona - Eskoriatza 43-39

JOKIN ANTZIA | ARETXABALETAKO FUTBOL TALDEKO PRESIDENTEA

"Ligako epaileak ez dituzte behar beste errespetatzen"

Xabier Urtelai

Entrenamenduetan ere daukana ematen duela Garitanok, eta horregatik lesionatu dela berriro ere.

Dena ematearena ezinbestekoa da gaur egun. Garitanori gertatzen zaiona da dagoeneko ez dela gazte-gaztea, eta denbora gutxi duela balio duen ala ez erakusteko. Realak behar ditu horrelako jokalaririk.

Arrazoi horregatik nor ez da inoiz lesionatuko?

Saso batean De Pedrengatik esango nuke hori. Baina, gazte asko geratu dira bidean, ez dutelako behar beste lan egin.

Javier Mandiolak zentzuzko berbak esan ditu aste barruan: Athleticetik hiru jokalaririk garrantzitsuak galdu dituela, eta ordezkoak Bigarren B mailakoak direla.

Eta egia da. Esango nuke, baina, Athleticetik boladaka funtzionatzen duela; oreka lortzen dutenean eskuratzen dituzte puntuak. Argi dago orain taldea ez dagoela orekatuta.

Athleticen maila bat dator dituzten helburuekin?

Ez dakit. Jokalaririk garrantzitsuak galdu dituzte, eta entrenatzaileak ere ez du aparteko curriculum, berria da. Mendilibarrekin lan handia egiten du, eta jokalariei ere hori eskatzen die. Baliteke izateko modu horrek Athleticen balio ez izatea, edo horren emaitzak bigarren itzulian ikustea.

Osasun gertatzen da kontrakoa? Badirudi guztiek dakitela taldeak noraino eman dezakeen.

Osasunaren kasuan, uste dut euren entrenatzailea oso prag-



matikoa dela. Hainbat urte daromatza taldean, ondo ezagutzen du dena eta ez du estiloz aldatzen; hori abantaila da.

Eta Pitermanen Alaves? Bartzelona eta Madril direla euren kontrarioak, eta Bodipo pitxitxi.

"Pitermanek beste helburu batzuk ditu; Alaves pauso bat baino ez da"

Uste dut Pitermanek beste helburu batzuk dituela, eta Alaves helburu horiek lortzeko beste pauso bat baino ez dela. Txarrena da beste talde batzuei errespetua galdu diela. Eta Bodipok ez dakit oraindik golik egin duen. **Lehen mailako epaileek prentsaurrekoa egin berri dute.**

Askotan, hobe izaten da ezer ez esatea. Ez dut uste, baina, horren txarrak direnik. Gainera, Ligan jokalaririk epaileari iruzur egiten saiatzen dira, eta European ez da horrelakorik ikusten; ez dira berdin errespetatzen.

Harmailatik

Hamaikakoa, erraza



Xabier Urtelai

Reala, ondo. Talde txuri-urdinaren hamaikakoa behar du beheko taulan, gainontzeko euskal taldeetako ordezkariek ez dute-eta apartekorik erakutsi. Eibarko batek baino gehiagok ere merezi du hamaikakoa egotea.

Kopa. Deportiboren kontrako emaitza positiboarekin, Kopan gertatutakoa ahaztea onena. Bi norgehiagokatan, Realak bi aurpegi erakutsi ditu. Ahaztu aurretik: Asteburuan Sansek mendean hartu du Zamora (3-2).


Bederatzi. Horiek dira Betisek astebetean jaso dituen golak. Izan ere, Malagakoek amaitu dute (5-0) Mourinhoren mutilek hasitako lana (4-0).

Nou Campen, gaitza. Ondo egin behar direla gauzak Bartzelonan irabazteko. Ahalegindu ziren Osasunakoak, Eto'ok eta


Messik nahikoa zela esan arte. Lehenak egin zituen bi gol, eta bigarrenak erakutsi zuen jokatzeko daukan talentua, eta arrakasta izateko duen gogoia. Eraso egiteaz gainera, bi jokalaririk horiek ez diote defentsa lanari muzin egiten.

Valdés. Gustuko dut Bartzelonako atezaina, baita bere harrotasuna ere. Pasea ematerakoan kale egiteagatik, baina, zapatuan txistuak entzun zituen berriro ere. Errazago egin beharko lituzke gauzak; Xavi dago paseak lerro artean sartzeko. Eta hanka-sartzea egindakoan, harro itxurak gutxi lagutzen du.

Batzarra. Mendilibarrekin aste barruan egin gura duena, guztien artean hausnarketa sakona egiteko. Cadizen galtzarekin batera, erakutsitako irudi eskasak ez zuen asko lagundu. Batzarra baino gehiago behar du Athleticetik zulotik irteteko.



Realaren defentsa
Amorrorturen taldeak zailtasunak izan ditu atzealdean, baina atzeko norgehiagokan lan handia egin zuten Deportibori eusten. Eta ez atzeko lerroak bakarrik; talde osoak.



Athletic eta Alaves
Gabezia handiak erakutsi dituzte bi talde horiek asteburuan. Athleticetik lehenengo zatian Cadizen atera behin ere ez zuen jaurti. Alavesek erraztu egin zuen Sevillakoan jaia.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Sevilla-Alaves	2-0
Bartzelona-Osasuna	3-0
Reala-Deportivo	2-0
Getafe-Zaragoza	5-2
Malaga-Betis	5-0
Vila-real-Mallorca	3-0
Cadiz-Athletic	1-0
Celta-Espanyol	1-0
Racing-At.Madril	0-1
R. Madril-Valentzia	1-2

HURRENGOAK

Valentzia-Sevilla
Betis-Vila-real
Zaragoza-Racing
Deportivo-R. Madril
Bartzelona-Malaga
Reala-Getafe
Alaves-Espanyol
Mallorca-Celta
At. Madril-Cadiz
Osasuna-Athletic

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Getafe	17	8	5	1	2	16	9
2. Celta	16	8	5	2	1	11	8
3. Real Madril	15	8	5	3	0	18	8
4. Valentzia	15	8	4	1	3	14	11
5. Osasuna	15	8	5	3	0	9	8
6. Bartzelona	13	8	3	1	4	17	10
7. Reala	13	8	4	3	1	12	14
8. Vila-real	12	8	3	2	3	13	9
9. Sevilla	12	8	3	2	3	7	5
10. Cadiz	12	8	3	2	3	7	6
11. Malaga	10	8	4	1	1	13	10
12. Deportivo	10	8	2	2	4	9	10
13. Athletic	10	8	3	4	1	7	9
14. Betis	9	8	2	3	3	5	12
15. Zaragoza	8	8	1	2	5	10	12
16. Racing	8	8	2	4	2	3	5
17. Espanyol	7	8	2	5	1	5	10
18. Alaves	6	8	1	4	3	7	13
19. Athletic	5	8	1	5	2	7	11
20. Mallorca	5	8	1	5	2	7	17



Kiniela

KINIELA

1. Vila-real-Mallorca	1
2. Sevilla-Alaves	1
3. Cadiz-Athletic	1
4. Celta-Espanyol	1
5. Bartzelona-Osasuna	1
6. Reala-Deportivo	1
7. Getafe-Zaragoza	1
8. Malaga-Betis	1
9. Racing-At.Madril	2
10. Levante-R.MadrilB	1
11. Elche-Gimnastic	1
12. Murtzia-Albacete	1
13. Tenerife-Hercules	X
14. Valladolid-Numantzia	1
15. R.Madril-Valentzia	2

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Emaitza bikainak lortu ditu azkenaldian. Triatleta da Ekaitz, baina korrika dabil. Donostia hiria zein Soraluze-Bergara herri lasterketetan nagusitu da. Aurretik,

Donostiako hiru hondartzetako lasterketan hirugarren sailkatu zen. Lan kontuak tarteko Valentzian da egunotan. Kiroletako oinetakoak maletan eramanean ditu.

EKAITZ OSA | KORRIKALARI OÑATIARRA

“Orain prestaketa lanak entrenatzaile aditu batekin egitea proposatu didate”

Larraitz Zeberio

Pozik egoteko moduko emaitzak lortu dituzu, ezta?

Oso pozik nago, baina badaikit lasterketa hauetara ez dela jende on-ona etortzen. Horien aldean beste maila batean nago ni. Emaitza onak dira eta ez nituen espero. Donostiako hiru hondartzetako lasterketan ondo ibili nintzen eta hirugarren sailkatu nintzen. Gero, Soraluze joan nintzen banekielako bailarako jendeak parte hartuko zuela. Azkenik, Donostia hiriko zirkuitua egin nuen, nahiz eta ez joateko esan zidaten astebetean hainbeste lasterketetan parte hartzea gehiegi izan zitekeelako. Baina ondo irten zen.

Zein lasterketa duzu gustuko?

Bailaran antolatzen den lasterketa batean parte hartzea polita da. Donostiako hiru hondartzetako ere oso ederra da. Paisaia zoragarria da, 1.500 korrikalari irten ginen... Donibane Lohizune-Hondarribia ere gustatzen zait. Aurten ezin izango dut parte hartu kanpoan nagelako. Ritxar Fernandez ondo ibiliko da. Baietz irabazi!

Zein ezaugarri ditu zuri ondo datorkizun probak?

Ez naiz korrikalari oso azkarrak. Distantzia luzeak komeni zaizkit, maratoi erdiak. 15-20 kilometroren bueltako lasterketak. **Bizikleta duzu zuk benetan gustuko. Zergatik?**

Txikitatik ibili naiz bizikletan. Duatloian eta triatloian ibiltzearen hasi nintzen korrika duela hiru bat urte. Korrika egitea proposatu didate orain eta beldur hori daukat, ez ote naiz aspertuko korrikarekin bakarrik?

Hobea zara, beraz, bizikletan?


Ez dakit ba nik. (Barre). Orain, agian, korrika esan beharoko!

Oñatiko triatloio taldeko kidea zara. Zein osasun du triatloiak gurean?

Nire ustez gora doa. Gero eta jende gehiago dago gure taldean. Dagoeneko 30 lagun garela uste dut. Jendea animatzen ari da, gehien bat triatloira.

Aurten egin da lehen aldiz Soraluze-Bergara herri lasterketa. Garrantzitsua da zure iritziz proba berriak sortzen joatea?

Zalantzarik gabe. Arrasate-Oñati lasterketa oso ondo dago, baina beste lasterketak ere egin behar dira. Arrasate-Bergara edo Bergara-Soraluze... Jendea animatzeko.



OHIANA ELORTZA

Ekaitz Osak prestaketa zorrotzagoak egin ala ez erabaki behar du.

“Oso pozik nago lortutako emaitzekin, baina badaikit lasterketa hauetara ez dela jende on-ona etortzen”

“Duela hiru bat urte hasi nintzen korrika egiten, duatloietan eta triatloietan parte hartzearen”

“Behobia-Donostia prestatzen nabil orain. Ez dakit zein denbora egingo dudan. Ahalik eta onena, noski!”

Ez zara lasterkari profesionala. Ikusten duzu zure burua horretan?

Gustatuko litzaidake, baina zaila ikusten dut. Nik nire lana daukat eta Ritxar nola ibiltzen den ikusita...! Egunean bitan entrenatzen da. Bizitza horretara moldatu behar duzu. Ni ere entrenatzen naiz baina oso bestelako maila batean.

Eta Xabi Lekueren antzera zure kabuz mundu mailako Iron Man lasterketa batean?

Ez dut nire burua Hawaiiin ikusten, sailkatzeko soilik maila handia behar delako. Gero, sei hilabete behar dituzu proba prestatzeko. Egunero-egunero eta gainera proba horretarako soilik. Niri asteroko saltsa gustatzen zait. Ez dut baztertzeko, baina aurten, behintzat, ez.

Behobia-Donostia prestatzen ari zara. Zein denbora egin nahi duzu?

Ez dut sekula esaten. Askotan kronometroa ere ez dut hartzen. Korrika egin eta kito. Ahalik eta lan hoberean egiten saiatuko naiz. Iaz dortsal horia lortu nuen, ordu bat eta hamar minututik beherakoa. Nahiko ona da. Ondo ateratzen bada, bikain!

Lasterketa

Ritxar Fernandez 2. sailkatu da Donibane Lohizune-Hondarribian

A.G.

Ritxar Fernandez korrikalari oñatiarrak ezin izan du aurteango Donibane Lohizune-Hondarribia 21 kilometroko erdi maratoia irabazi.

Atzo goizean, domeka, jokatzen zen 21 kilometroko lasterketa. Ritxar bigarren sailkatu zen 1:10'25" denborarekin. Zortzi segundo lehenago sartu zen helmugan Franc Loustau frantziarra. Bere denbora, 1:10'16" izan zen. Hirugarren Loic Rimet-Mignon lasterkari frantziarrak egin du.

MARKA AIPAGARRIRIK EZ

Iaz bezala, aurten ere ez da marka bikainik egin Donibane Lohizune-Hondarribia lasterketan. Haizeak gogor jo zuen kostaldean eta gogor egin ziren lasterketako zenbait zati. Ritxarrek 25 segundotan hobeto du bere iazko marka, baina ez da nahikoa izan Loustau-ri irabazteko. Ondo prestatuta joan da oñatiarra baina azken unean ihes egin dio garaipenak.



ARTXIBOA

Ritxar Fernandez.

BEHOBIA PRESTATZEN

Aurten 1.075 korrikalarik hartu du parte Donibane Lohizune-Hondarribia erdi maratoian. Askorendako lasterketako 21 kilometroak aukera bikaina izan dira azaroaren 13an egiteko den Behobia-Donostia lasterketa herrikoia prestatzeko.

Mendi bizikleta irteera Eskoriatzan



LZ

Azken orduko izenemateak tarteko 15 minutu atzeratu zen irteera.

Aurreikuspen guztiak gainditu ziren eta 258 txirrindulari irten ziren

Larraitz Zeberio

Gogotsu dabilta nonbait mendiko bizikletazaleak Debagoienan. Atzo, domeka, Eskoriatzako mendi bizikleta irteeraren antolatzaileen aurreikuspen guztiak gainditu ziren. 258 txirrindulari hartu zuten irteera Eskoriatzako herriko plazan. “Beste urteetan 170 bat lagun

etortzen dira”, azaldu zigun antolatzaile batek.

Irteera 15 minutu atzeratu zen azken orduko izenemateak tarteko. Parte-hartzaile kopuru handiak ere bere eragina izan zuen ibilbidean prestatuturiko gosarian. Zegoena denen artean banatu behar! Amaieran sari banaketa egin zen eta motxila bana jaso zuten txirrindulariek.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Aitor Sarriegi izan zen atzo onena Amaiako bertso txapelketa | 24
- Gose taldeak diskoaren aurkezpen kontzertua egin zuen egubakoitzean, Arrasaten | 25

Oier Sarasuarekin
Sitgeseko film
lehiaketan jaso
berri duen sariaz
jardun dugu | 26

SEX PISTOLS BANDAKO BAXU-JOTZAILE OHIA OÑATIN



AITOR LIZARRALDE

Rock talde oso ezagunetako kideekin osatu du Glen Matlock-ek The Philistines, besteak beste, Pretenders edota Sinnesters taldeetakoak.

GLEN MATLOCK | PUNK ESZENATIK IHES EGIN ZUENAK, ALDE MELODIKOAGOA ERAKUTSI ZUEN GAZTELEKUAN

Ikusleak pizterik ez zuen lortu Sex Pistolseko lehenengo baxuaren bandak

Punk musikaren hasieretako funtsezko rock eta popetik hurbilago dagoen kontzertua egin zuen Glen Matlock baxu-jotzaileak The Philistines taldearekin batera Oñatiko Gaztelekuan

Jon Berezibar

Punk-rockaren hasierako urteetako giltzarrietako bat izan genuen egubakoitzean Oñatin. Sex Pistolen baxu-jotzaile eta beste makina bat bandaren sustatzaile izandako Glen Matlockek kontzertua egin zuen The Philistines, bere azken bandarekin batera.

Punkaren garairik goreneko talde mitikoaren partaide izan bazen ere, egun 70. hamarkadako doinu horiek oihartzun besterik ez dira Glen Matlock eta Philistines taldearen kontzertuetan. Lehengo amorruzko punk abestiek rock eta tarteka poperako bidea hartzen dute Sex Pistols oiharen abestiek. Melodikoago bai, baina behar bezala-

ko rock kontzertua egin zuten egubakoitzean.

On something, Matlocken banda honen azken lana aurkeztera etorri ziren Oñatiko Gaztelekura, *Gaztemaniak* egitasmoaren barruan. Punk eta powerpoparen tartean kokatzen dute euren soinua eta egubakoitzean ere punkaren alderdirik melodikoenaren lekuko izan ziren Gaztelekuko ikusleak.

Aretoa guztiz bete barik, nahiko hotz erantzun zioten ikusleek Matlock eta bandaren zuzenekoari; giroa berotzerik ez zuten lortu. Hala ere, kontzertu ona egin zuten egubakoitzean; rock klasikoko emanaldia izan zen, baina ez zuten ezagun egin zituen punk iragana ahaztu.

HIRU HAMARKADA MUSIKAN

Oholtza ez zitzaion batere arrotz egiten Matlocki. Horregatik daramatza 30 urte musika egiten eta azken hamarkadetako abes-


lari eta talde garrantzitsuenetakoekin jo du. The Philistinesekin batera hiru disko kaleratu ditu dagoeneko eta joaldiaren zati garrantzitsu bat bandaren abestiek osatu zuten. Baina Matlockek musikan egindako ibilbidea luzea da eta horregatik ez zituen alde batera utzi Sex Pistols-en klasikoa eta The Monkees edota Small Faces taldeenak. Orotara, punka baino rocka izan zuten ardatz Gaztelekuko kontzertuan. Errepertorioa bakarka ateratako lanetako abestiek osatu zuten egubakoitzean. Matlockek Sex Pistols goren-gorenean zegoenean utzi zuen rock melodikoagoa gustuko zuelako eta bere horretan jarraitzen duela erakutsi zuen Gaztelekuan ere.

Punketik urrundu eta rock zein pop ukituko kantuak izan ziren nagusi

Tartean, Sex Pistols talde mitikoaren klasiko bat edo beste ere jo zuten

SEX PISTOLS BANDAKO BAXU-JOTZAILE OHIA OÑATIN

• GAZTETAKO PUNK JARRERATIK EGUNGO ROCK KONZERTUETARA



PISTOLS-ETAKO ALDE POPEROA. Sex Pistols punk banda mitikoaren sortzaileetako dugu Glen Matlock, Sid Vicious are mitikoagoarekin ordezkatu baino lehenago. Legendak dio Beatles-en musika atsegin izateagatik bota zutela Glen Sex Pistols taldetik. Ipuinak ipuin, bere garaiko Sex Pistolsen alde melodikoen arduradun dugu Matlock, nahiz eta berehala kanporatua izan. Iggy Popen baxu-jotzaile ere izandakoa da.



IKUSLEAK HOTZ. Kosta egin zitzairen Matlock eta gainontzekoei kontzertuaren giroa bertzera. Hasieran hotz egon ziren ikusleak eta bukaeran ere ahalegin handiak egin behar izan zituzten Gaztelekuan bildutako jendea pizteko. Kontzertu amaieran ere aurpegietan nabaritzen zitzairen musikariei espero baino gutxiago jaso zutela ikusleengandik. Sex Pistolsen klasikoekin ere ez zuten lortu gura zuten erantzuna.



BANDA OSOA EKARRI ZUEN. The Philistines-en konpainian gustura ibili zen Glen Matlock. Rock eta punk eszenako musikariek osatzen dute Sex Pistols oiharen azken taldea. Gitarra-jotzailea, esaterako, Johnny Thunders eta Pretenders banda ezagunekin jotakoa da eta besteak ere The Professionals edota Sinnesters taldeetako kideak dira. Oholtzan ere urtetako eskarmentua nabaritzen zitzairen musikariei.



ASPALDIKO EZAGUNAK. Hainbeste urte musikagintzan eginda, belaunaldi bat baino gehiagotan ditu jarraitzaileak Matlockek. Hala ere, Gaztelekua ez zen inondik ere bete eta bertan bildutako ikusle gehienak punk hasiera horietan ezagutu zutenak izan ziren ziur asko. Punka, antza, 90eko hamarkada erdialdera berpiztu zela esaten dute, baina gaztetxo gutxi gerturatu zen barikuan Gaztelekura.

• POTEKIN, ZALEEI HUTS EGIN BARIK

Kontzertu bizia eginez, jarraitzaile eta lagun talde polita bildu zuten oñatiarrek

Zuzeneko emanaldi indartsua eta grina handikoa izan zen oñatiarrena. Glen Matlock eta konpainiaren anfitrioi, ingelesentzat bero utzi zituzten bai oholtza, bai ikusleak. Hasierako gonbidatuak izan ziren Gaztemaniak-ek antolatutako kontzertuan eta laburra izan bazen ere, izan zuten denbora ongi aprobetxatzen jakin zuten. Izan ere, jarraitzaileak gehiagorako gogoarekin utzi zituzten herriko laukoteak egubakoitzekoan.

Jarraitzaile borrokatuak ditu Potekin taldeak eta hori asko nabaritu zen kontzertuaren hasiera-hasieratik. Denboraz labur, baina ikusleek gura zutena jaso zuten Aixibar Urteagak gidatutako taldetik. Espektazio hori kontuan hartu eta zuzenekoan duten indarrarekin emanaldi bikaina egin zuten oñatiarrek; betiko abesti, moldaketa eta abesti berriekin.

Talde moduan jotzen urte pare bat berterik ez badabilta ere, eskarmentu handiko kideek osatzen dute eta hori da euren indarretako bat, zuzenekoan bikain erakusten dutena.

MATERIAL BERRIA UDABERRIAN

Disko berria gertu daukate oñatiarrek. Grabatua bai, baina banaketa eta gainontzekoak egingo dizkien diskoetxea falta zaie, hain zuzen ere.

Uneotan, beraz, horren bila dabilta eta asmoa daukate martxo alderako argitaratzeko. Abesti berriak, baina, dagoneko eman dituzte ezagutzera eta egubakoitzean ere lan berri horretako makina bat abesti jo zituzten. Momentuz 13 abestiz osatutako maketa daukate kalean, Haritz Harreguyrekin 2003an Andoainan grabatu zutena.



Udaberrirako kaleratu gura duten diskoko abesti batzuk aurkeztu zituzten egubakoitzean.



AITOR LIZARRALE

Aitor Sarriegi (eskuman) beasaindarra izen zen lehenengoa atzoko saioan, Arkaitz Goikoetxearekin

Sarriegi, Estiballes eta Goikoetxea aurrera

Atzoko saioan, bete egin zen Amaia Antzokia, finalerdietarako azkeneko hautagaien saioa entzuteko

Irati Agirreazaldegia

Bete egin zen Amaia antzokia atzo, baina giroa ez zen oso beroa izan. Txalo zaparrada handirik ez zen egon; aipagarriena kartzelako lanean.

Agurretan Sarriegik orain 14 urte eskolarteko txapelketan Amaian aritu zela ekarri zuen gogora eta orduko saio kaskarra hobetzeko asmoz zetorrela esan zuen. Ondo kitatu zuen saioaren amaieran.

Zortziko handian aipatze-koa da Arkaitz Goikoetxeak eta Sarriegik egindako lana: aita-seme lanetan, aita semea biko-tea ez duen batekin musuka harrapatzen du parke baten eta hor polit joan ziren gauzak; publikoari barrea eragin zioten aita-semeek.

Zortziko txikian, aita-seme- en paperean hemen ere, Arkaitz

biak domeka gauzez matematika ariketak egiten jarri zituzten. Elkar zirikatzen jardun ostean, numeroetan oso abilak ez direla erakutsi arren, saioaren amaieran alde izan zituzten zenbakiak.

Puntua emanda ez zen aparteko bertsorik entzun orokorean.

Hamarreko txikian Sarriegi eta Estiballes, erlijioa tarteko, zapia buruan batek, zergatik kentzen ez duen erantzun behar izan zion besteari. Arrazoi politik eman zizkion batak besteari.

Kartzelakoan, "errezeloak zenituela eta etxean kamera ezkutua jarri duzu; grabatutakoa ikusten ari zara" izan zen gaia. Guztiek zerbait ezberdina ikusi zuten eta bertsotan ale politik entzun genituen.

OROIGARRI BANA

Arantzazu Loidik bertsolari bakoitzari oroigarria eman zien eta ondoren, puntuazioak jakinarazi zituen Unai Elizasu gaitzartzaileak.

Emaitzak

IZEN ABIZENAK	PUNTUAK
Jon Martin	712,5
Amets Artzallus	708
Etzahun Lekue	706,5
Ekaitz Goikoetxea	703
Aitor Sarriegi	698
Xabier Paya	690
Amaia Agirre	688,5
Fredi Paya	681
Arkaitz Goikoetxea	678,5
Iñigo Manzisidor Mantxi	677,5
Arkaitz Estiballes	673,5
Jokin Uranga	676,5

ZUZENEAN SAILKATU ZIRENAK

Unai Iturriaga
Jon Maia
Igor Elortza
Aitor Mendiluze
Sustrai Colina
Jesus Mari Irazu

Louisianako hiri eta kaleetara bidaiatu genuen jazz eta blues doinuekin

Mac Jeara's Band zortzikoteak blues eta jazz doinu esanguratsuenak eskaini zituen bariku gauean Espaloia Kafe antzokian

Non. Elgetako Espaloia Kafe Antzokian.
Zenbat jende. 40 bat lagun.
Iraupena. Ordu eta erdi pasatxo.

L.Z.

Tronpeta, klarineta, tronboia, saxoa, pianoa, helikoia, bateria eta ahotsa izan ziren barikuko blues eta jazz kontzertuko osagaiak. Mac Jeara's Band talde gazteak ordu eta erdi pasatxo kontzertua egin zuen eta blues zein jazz doinu ezagunak eskaini zituen emanaldian. Soinean zituzten jantziekin jaso genuen emanaldiaren nondik norakoaren lehen arrastoa: traje eta gorbatarekin etorri ziren eta zinta zuridun kapela buruan guztiek.

Aukeran jende gutxi bildu zen Elgetako udalak antolatutako kontzertuan, baina musikariek bertaratutakoak poltsikoratu zituztela esan genezake.

Basin street blues, Undecided, Diga Diga Doo, Sweet Georgia Brown eta antzeko klasikoak eskai-

ni zituen musika irakasle gazte- ez osatutako taldeak. Ez zen inor dantzara animatu baina aukier- tan eserita zeuden ikusleak musikaren erritmora mugitzen ikusi genituen.

PUBLIKO GUSTURA

Mac Jeara's Band taldeko Ana Araujo abeslariaren azalpenak eskertu zituen publikoak. Missisippiren deltarra bidaiatu genuen taldearekin eta bertan sortutako blues zein jazz doinuak entzun genituen.

Tronpeta, tronboi, klarineta zein saxo-soloak ugariak izan ziren eta publikoak asko gozatu zuen horrelakoekin.

ELGETAKO ESPONTANEOA

Saio luzea eta txukuna egin zuen Mac Jeara's Band Elgetan. Hala ere publikoari laburra egin zitzaion emanaldia eta amaitu ondotik musikariek beste bi pieza jo behar izan zituzten.

Amaiera aldera Beñat Le- nizzabarrutia elgetarra animatu zen agertoki gainera. Bi koilara- rekin igo zen eta musikariek in- batera aritu zen azken piezan. Amaiera ona izan zen hura.



AITOR LIZARRALE

Ana Araujok (ahotsa) piezei buruzko azalpenak eman zituen.

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

Eskuratzeko modua:
SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA

7505
zenbakira



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematean doan da eta Ki jaitziera bakarik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemari alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-ra. / * Movistar: deitu 609-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin dituztegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

ABESTIAK POLIFONIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | **EIBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Real | **REAL**
Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**
Amore amore (Kandideko benta) | **AMORE**
Bi Minutero (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Hertzainak) | **DUB**
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**
ER Sukarra (Ei Sukarra) | **SUKAR**
Etsi dicin mierda, nosotros amen (La Palma) | **ELLOS**
Enamorado de la muerte (En) | **ENAMO**
Etorkizuna (Etsaiak) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**


Hator Bel-Air (Bide Erantz) | **BELAIR**
Haizea (Ken7) | **HAIZEA**
Hegal egiten (Itzi) | **HEGAL**
Ikusi (Deinam Tremena) | **IKUSI**
Ilgaria (Ken7) | **KEN**
Inperuen ate joko (Gatibu) | **INPER**
Jokin Uraimi Hitzak (Bide Erantz) | **JOKIN**
Kaixo (Ur) | **KAIXO**
Lau Teitatu (Itzi) | **ITZOILAU**
Laztana (Laztan) | **LAZTA**
Lotuta egon arren (Kakain) | **LOTUTA**
Lorekoa (Xoxo) | **LORE**
Marea Gora (Marea) | **MAREA**
Musturrek sartunde (Sazubi) | **MUSTURREK**
Nicaragua (Gorria) | **NICA**
No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**
Salve (La Palma) | **SALVE**
Sari Sari (Kortatu) | **SARRI**

Sorginen leizean (Etxe) | **SORGIN**
Txabro (Zarama) | **TXATXO1**
Txus (La Palma) | **TXUS**
Trikitixa
Bexamela ta pastela (Marea ta bier) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKESPOK**
Hik lan eta nik jai (Tapiak) | **HIK**
Itsas ontzi baten (Kaxkaino) | **ITSAS**
Kupela (Ezpele eta Larrataga) | **KUPELA**
Mila galdera (Aizko) | **MILAI**
Nirekin (Gorria) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**
Txanpon baten truke (Aizko / Mader) | **TXANPON**
Folk
Arratsalde honetan (Gorria) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantosa) | **BAI**
Bakezaleak (Anje Duhalet) | **BAKE**
Bizkaia Maitte (Bento Lertxundi) | **BIZKAIA**

Eperrak (Anje Duhalet) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Osakoz) | **EUSKAL**
Euskaldun barenen baldia (Osakoz) | **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ondoñak) | **POSIBLE**
Furra Furra (Osakoz) | **FURRA**
Galziara noa (Osakoz) | **GALZIARA**
Germikako Arbola (Gorria Mendibil) | **GERNIKA1**
Haika Mutu (Mikel Laboa) | **HAIKA**
Izarren hautsa (Kaber Lete) | **IZARREN**
Lepoan hartu ta (Pantosa) | **LEPOAN**
Martinekaren zati (Gorria) | **MARINE**
Nere herriko neska eta maita (Lertxundi) | **NERE**
Non geratzen den denboraren (Mikel Oteiza) | **NON**
Oñ Anja Euskal Herria (Lertxundi) | **OÑAMA**
Tirauki (Osakoz) | **TIRA**
Txatxamabaitak (Mikel Oteiza) | **TXATXA**
Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ondoñak) | **ZAINDU**

Herrikoia
Bagare | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**
Ikusi Mendizaleak | **MENDI**
Pimbo-pimbo | **PINTXO**
San Simon eta San Judas | **SAN**
Jaietakoak
Artillero dale fuego | **ARTILLERO**
Marijaila (Kepa Junkera) | **JAIA**
San Fermin | **FERMIN**
San Martzialak alardea | **SAN MARTZIAL**
SOINU ERREALAK (2 sms)
Soinu izena | **KODEA**
Irrintzia | **IRRINTZI**
Txalaparta | **TXALAPA**

JOKOAK (4 sms)



Eskuratzeko modua:
JOKUA: SOINUJ+hutsunea+KODEA
7505 zenbakira
Prezioa: 3,6 +BEZa



AITOR LIZARRALDE

Zein? talde bizkaitarrak blues ukutuko abestiak jo zituen.

Melodiak gitarren gaineratik, Zea Mays eta Zein?-ekin

Aiora Renteriaren ahotsa lema dutelarik, zuzeneko bikaina eskaini zuen Zea Maysek. Aurretik Zein? taldeak jo zuen

Asteleheneko Goienkaria

Zein? talde bizkaitarra izan zen jotzen lehena. Kontzertu luze eta melodikoa eskaini zuten, batez ere *Photograma* euren azken lanean oinarritutakoa. Pop-rockean kokatzen badira ere, emanaldian blues doinuekin jantzi zituzten euren abestiak, soinu garden eta zuzenarekin. Oholtza gainean, gainera, Ama Says taldeko abeslaria izan zuten lagun, taldearen aspaldiko eza-guna eta laguna dena.

ZEA MAYSE

Zea Maysekoek, ostean, kontzertu zabala egin zuten. *Sortuz, grabitatearen aurka*, azken diskoko abestiak aurkezten, soinu biziagoa du Bilbotarren zuzenekoak. Azken urteotan disko itzelak kale-ratu eta oholtza gainean ez du hutsik egiten Aiora Renteriaren taldeak. Abeslariaren ahots ikaragarriarekin azken diskoan eta 2000. urteko *Elektrizitatea* lanean oinarritu zen joaldia. Disko berriarekin, batez ere, berehalakotasuna eta bizitasuna ematen

dio taldeari. Zapatukoan, gainera, ez ziren *Elektrizitatea* edo *Hegaz* (gizakia naiz) moduko klasikoak. Aipagarria da stoner estiloa jorratzen hasi direla azkenaldian, eta horrela zuzenean indarra lortzen dute. Bertsioren bat edo besterekin ere ausartu ziren zapatukoan, baina benetan fin euren abestiekin ibili ziren, asko dagoeneko klasiko bilakatu direnak, ziur asko.

Poliki-poliki bide polita egiten ari dira bilbotarrak, abesti sorta bikaina dute errepertorioan eta zuzenean gero eta ikaragarriagoak dira kontzertuak. Bide berriak jorratzeko gai direla frogatu dute azken diskoarekin eta horri eutsita etorkizun paregabea daukala ematen du taldeak.



MUSIKA | LAUSARDI KORU SINFONIKOA BERGARAN

Donato Goyenecheren *Afrika* emanaldia egin zuten zapatuan Lausardi Koru Sinfonikoak Bergarako Udal pilotalekuan. Jende ugari joan zen emanaldia ikustera; ez ibarrekoak bakarrik, Donostiako Orfeoiko hainbat kide ere etorri ziren. Obra garai-

kidea da, *Afrika* kontinentea sentitzeko modua eta hori islatu zuten koruko kideek. Mari Fe Nogales mezzosopranoak eta Jesus Garcia Arejula baritonoak oso lan polita egin zuten. Udaberriari Arrasaten egingo dute emanaldia, seguru asko. | A.G.



TRIKI-TEKNOA | GOSE TALDEAREN AURKEZPENA

Lehenengo emanaldia herrian, bikaina benetan

A.G.

Ines, Iñaki eta Tadeos hirukoak osatzen dute Gose taldea eta egubakoitzean lehenengoz aritu ziren zuzenean euren herrian, Arrasaten. 3.60 aretoan ordubete pasatzeko emanaldia egin

zuten eta ikusmina bazegoenez, aretoa bete samar zen. Trikiaren eta teknoaren nahasketa erakargarria eskaini zuten, euren irudiekin nahastuz. Musika dotorea egiten dute eta Inesek bikain abestu zuen. Goseren CDak eta elastikoak jarri zituzten salgai.



ERAKUSKETA | NAHIKARI TABERBAN

Unzurrunzaga oñatiarraren margolanak Bergaran

A.G.


Marilu Unzurrunzaga oñatiarrak margo erakusketa du Bergarako Nahikari tabernan. Bergarako Eskolako ikasle da, Abdon Juaristi margolaria zenarekin egin izan du lan eta gaur egun Juanjo Altu-

naren tailerrera joaten da. Olio teknika haien eskutik jaso du eta pintura figuratiboaren erronkei aurre egiten ikasi du: marrazkia eta sakontasunaren irudipena sortzea argiaren erabilera egokiarekin. Erakusketa hil bukara arte dago ikusgai.


AZKARATE
AROSZTEGIA



Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



Zoru aukera zabala

Sitgesko Nazioarteko Zinema Jaialdian, artista berrien sailean, saria jaso du Oier Sarasuak, dokumental bati jarritako musikagatik. Dokumentala, *14 apostolu*,

bere lehengusina Maialen Sarasuak, oriotarrak, egin du. Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitateko karrera amaierako lana lehiaketara aurkeztu eta hara! Saria!

Zaletasun legez lantzen du musika Oierrek, baina Liken taldean gitarra jotzen du, KMK '05eko kantaren musika sortu du eta orain, saria eman diote soinu bandagatik.

OIER SARASUA | MUSIKA SORTZAILEA

"Ahotsik bako musika nahiko iluna da; karga emozional iluna du"

Marijo Deogracias

Zer agertzen du *14 apostolu* dokumentalak?

Garai bateko euskaldunen bizimoduaren galera azaldu nahi duen lana da; nahiko erromantikoa da, baina funtsean hori da. Lehengusina oriotarra da eta arraunketarekin lotzen du berak galeretako edo aldaketetako bat. Sasoi baten militantziaz egiten zuten arraunketan eta hori berori extrapolatu daiteke bizitzako beste arlo batzuetara ere. Hori guztia adierazteko gure aitona hartu du ardatz moduan; arraunlaria eta nekazaria zen gure aitona eta Oteitzaren lagun ere bazen. Antza, Oteitzak gure aitona erabili zuen *14 apostolu* etako baten modelo legez eta hori guztia lotu gura izan du lanean.

Eta hori guztia kontatu zizun lehengusinak dokumentala musikagatetik eskatu zizunean.

Bai. Nik ez nuen irudirik ikusi musika sortu aurretik. Kontua zen berak karrera amaierarako aurkeztu behar zuela lana eta ni, KMKko abestia egiten ari nintzen. Denbora gutxi izan genuen. **Dokumentala aurretik ikusi izan bazenu, musika beste bat litzaiteke?**

Ez dut uste. Ulertu egin nuen dokumentala; neure egin nuen bere historia. Hala ere, ez daukat esperientziarik horrelako jardunetan eta ez dakit esaten zein den metodorik egokiena.

Ala bai? Egin duzuen eran irabazi duzue saria.

Ba, baliteke.

Lehengusina ere gustura?

Bai eta gainera, pozik zegoen hainbat lagunek musika gustukoa zutela esaten ziotelako.

Nolako musika sortu duzu?

Ahotsik bakoa da. Nahiko iluna da, karga emozional iluna du. Gitarra, biolina, djeridua, bale soina, arraun soina, txalaparta eta besteren bat entzuten dira.

Zuk jo dituzu musika tresnak?

Bai, biolina izan ezik.

Eta musikari barik, ingeniari.

Bai, baina beti gustatu izan zait musika. Solfeoa ikasi nuen eta klarineta ikasten ere hasi nintzen. Geroago gitarrari ekin nion. Beti geratzen zaizu musikaren sedimentu hori barruan. Djeridua, berriz, Britainiako dena afrikar baten topatu nuen eta merkea zela eta erosi egin nuen. Bidaiatik bueltan hasi nintzen harekin saiatzen. Hala ere, jo egiten dut, baina egunen baten ikasiko dut ganoraz.

Sarasuatarren geneetan dator artista izatea?

Izan daiteke (barreak).

Nolatan aurkeztu zuen *14 apostolu* beldurrezko eta fantasiazko zinema jaialdi batera?

Sitgesko jaialdiak, nik ez nekien baina horrela izan da, badauka egile berriendako atal bat eta hara aurkeztu zuen.

Baina beldurrezko ala fantasia generoetan ari da dokumentala?


Nik ezetz uste dut. Beldurrezkoa ez da eta fantastikotik ere ez dauka ezer, hortaz, ez dakit nolatan aukeratu duten.

Eta, zuk gustuko dituzu era horretako filmak?

Parean tokatuz gero, joaten naiz horrelako filmak ikustera, baina ez naiz genero horren zalea. Errealitatea nahikoa beldurgarria da bestela ere.

"Euskaldunen bizimoduaren galera azaltzeko aitona hartu dut ardatz moduan"

"Oteitzak gure aitona erabili zuen *14 apostolu* etako baten modelo legez"



Oier Sarasua, etxeko txikiena, ingeniaria da lanbidez eta musika zaletasuna duela dio.

Kilometroak *05eko* kantaren doina ere zurea da. Nolako esperientzia izan zen horrelako kanta bat sortzea?

Kanta berezia izan da bai, baina uste dut ez zela nahiko lan egin kantaren mezua sozializa-

"Kilometrotako kantaren mezua sozializatzeko ez zen lan nahikorik egin"

"Musika egiten oso gustura sentitzen naiz; asko betetzen nau horrek"

tzeko; izan ere, asko zuen letra horrek. Esperientzia aldetik, polita izan da eta denbora asko inbertitu genuen lan horretan. Aldi berean, zaila izan zen, batez ere, jende mordo aritu zelako abesten; hirurogei bat lagun!

Prozesua, berriz, interaktiboa izan zen; musika zati batetik abiatu ginen eta letra zati bat idatzi ostean musikarekin jarraitzen genuen. Elkarlana izan zen. **Musikazalea izanik, KMK '05eko kanta egin duzu eta sari bat irabazi dokumental bateko musikagatik. Musika lanbide bihurtzea pentsatu duzu?**

Musika egiten oso gustura sentitzen naiz; asko betetzen nau horrek. Baina ez dakit zerbaiteraino ona den, sortzen ari zaren horrekiko, egin beharraz aritzea.

Musikatik bizi ahal izateko, gustuko ez dituzun gauza asko egin beharko nituzke eta, alderdi horretatik, nahiago dut alde ludikoari eustea.

Liken taldea ere alderdi ludiko horretan kokatzen da?

Bai. Orain dela 3 bat urte hasi ginen Iker Iglesias (baxua), Andoni Arana (gitarra), Aitor Ziardegi (pianoa), Igor Errarte (biola) eta ni neu (gitarra) proiektu horrekin. Diskorik ere ez dugu atera, baina inoiz egingo dugu; baditugu sortutako lan asko, baina ez dugu presiorik izan nahi. **Aurretik Biluma bikoteko kide zinen.**

Andoni Aranarekin izan zen. Gure lehenengo esperientzia izan zen; polita. Bi gitarra eta bi ahots ginen. Kultura Errotarekin hogeit bat zuzeneko egin genituen, baina musikari barik entseguei denbora gehiago eskaintzen geniola ohartu ginen eta bertan behera laga genuen.

Saria SGAEk eman dizue.

Bai eta hasi ere egin dira erregratu beharko dugula esaten, beraz, egin beharko dugu hori ere lehenbailehen.

Euskarazko bi film, 'Obaba' eta 'Aupa Etxebeste!', emango dituzte asteen

Hilean birritan, euskarazko filmak emango dituzte Eskoriatzako Ibarraundi museoan, azaroan hasita

Leire Kortabarria

Euskal Herriko eta euskarazko zinemas gozatzeko aukera aparta dago egunotan Debaioenean. Izan ere, Oñatiko zinema aretoan, kultura etxean, *Obaba* filmaren euskarazko bertsiua, azpititulurik gabe, emango dute gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, 19:30ean. Film hori ikusteko aparteko saioak antolatu dituzte; hala, zapatuan ohi baino saio bat gehiago izan zen, eta martitzenekoa ere ezohikoa da.

Oñatiko Udalak ezohiko emanaldiak antolatu zituen *Aupa Etxebeste!* filmaren kasuan ere. Eguaztenean ere eman zuten, ordura arteko arra-

kasta ikusita, eta 1.170 ikusle izan zituen denera –guztira, 50.000 ikusle ditu orain arte filmak. Oñatiko zinema aretoak 128 lagunendako lekua du.

'AUPA ETXEBESTE!'

Aupa Etxebeste! ikusi ez dutenek horretarako aukera dute hilaren 28an eta 29an. Asier Altuna egilearen herrian, Bergaran, filmaren lau emanaldi egingo dituzte. Egunero 20:00etan eta 22:30ean emango dute, pilotalekuan. Sarrerak saltzen hasi dira dagoeneko, eta erosteko modua duzue aste osoan kultura etxean, 18:00etatik 21:00etara. 2 euro da.

ESKORIATZAN ERE BAI

Eskoriatzan zinema emanaldiak egiten hasiko da Udala azaroan. Beti euskarazko filmak izango dira.

Domeka arratsaldeetan, azarotik apirilera bitartean, hilean birritan izango dira zinema saioak Ibarraundi museoan. Hala, azaroaren 13an, *Harry Potter eta Sorgin Harria* filma emango dute, eta 27an, *Alhambra printzea*, biak 17:30ean.

Labur

'Gomendatzen dizut...' lehiaketan parte hartzeko azken egunak dira

Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuek antolatutako Gomendatzen dizut... lehiaketan parte hartzeko azken egunak dituzue. Hain zuzen, etzi, eguaztena, bukatuko da gomendioak uzteko epea. Gomendio "xumeen" bila dabilta antolatzaileak, "lagun bati oporretatik bueltan kontatzen zaizkion gomendioak", euren hitzetan. Ahal dela, argazkia ere bidaltzea eskatzen dute.

Sariketara bidalitako argazkiak eta aholkuak www.aizue.com webgunean daude, eta gainerako informazio guztia ere bai.

Bergarako Aroztegi aretoan erakutsi nahi dutenek eskaera egin dezakete

Bergarako Aroztegi aretoan erakusketa ipini nahi duten artistek eskaera egiteko aukera dute azaroaren 18ra bitartean. Horretarako eskaria eta dokumentu guztiak Bergarako Udala Erregistroan aurkeztu beharko dituzte. Honako datuak aurkeztu behar dira, besteak beste: norbere datuak, baldintzen pleguaren onarpena, ibilbidearen gaineko laburpena, erakusketa zelakoa izango den... Bergarako Udala Kultura Sailean sortutako batzorde batek aukeratuko du eskaera guztien artean.

Margo erakusketa dago Elgetan, Juan Carlos Mora artistaren eskutik

Juan Carlos Mora margolariak bere lanen erakusketa zabaldu du Elgetako Espaloia antzokian. Joan den zapatutik dago zabalik, eta aste osoan dago berau bisitatzeko aukera. Ekuadortarra da Mora, baina Beran daramatza lau urte. Aurretik, Iruñean, Elizondon eta Donibane Lohitzunen erakutsi ditu bere lanak.

Elgetako erakusketak Moraren 23 margolan batzen ditu. Mihi-sean egindako olioak eta kartoi mehean egindako akuarelak daude. Estilo aldetik, eskola inpresionistakoa da.

Hitzorduak

ARGAZKI LEHIAKETA | Murruxio Mendi Elkarateak 2006ko egutegiaren azalerako argazkiak behar ditu

Aretxabaletako Murruxio Mendi Elkarateak argazki lehiaketa deitu du. Azaroaren 8ra bitartean bitartean duzue lanak bidaltzeko aukera. Lehiaketa antolatu dute elkarateak banatzen duen egutegiaren azala aukeratzeko. Oinarriak hauek dira: gehienez, lau argazki bidal daitezke; papelean, diapositiban edo irudi digitala, CDan, bidal daiteke Artxabaletako 34. posta kutxara, edo Murruxioren lokalera eraman martitzen arratsaldeetan. 125 euroko saria emango dute.

Zabalik daude ibarrean beste argazki lehiaketa batzuk: hala, Antzuolako argazki lehiaketak eta Aramaioren gaineko sariketak asteen dute mugaguna.



ZINEMA |

• **La isla** filma emango dute gaur, astelehena, Arrasaten. Film hori ikusteko aukera dago gaur, astelehena, Amaia antzokian, 20:30ean.

• **La madre del novio** filma emango dute Oñatin. Gaur, astelehena, emango dute film hori kultura etxean, 19:30ean. Ikuslearen eguna da.

• **El odio** filma emango dute etzi, eguaztena, Elgetan. Espaloia antzokian emango dute film hori etzi, eguaztena, 21:30ean.

• **La memoria del asesino** filma emango dute Arrasaten. Eguenean, hilak 27, emango dute film hori Amaia antzokian, 20:30ean. Zineklub emanaldia da.

• **Whisky** filma emango dute Oñatiko zineklubean. Eguenean, hilak 27, emango dute film hori kultura etxeko zinema aretoan, 20:30ean.

ERAKUSKETAK |

• **Zalakain eta Azkargorta** margolarien erakusketa.

Margolari arrasatear horien bien erakusketa zabalduko dute eguenean, hilak 27, Oñatiko kultura etxean. Azaroaren 6ra bitartean egunero izango da zabalik, 18:30etik 20:30era.

• **Emakume bat hezi, herri bat hezi** erakusketa Arrasaten. *Emakume bat hezi, herri bat hezi* delako erakusketa izango da Monterron kultura etxean.

Gaur, astelehena, zabalduko dute, eta aste osoan egongo da zabalik, 18:00-20:00 ordutegian.

• **Manuel Lasarteren gaineko erakusketa dago Oñatin**. *Manuel Lasarte: Bizitza eta Sorkuntza* erakusketa dago Arantzazun, Bitoriano Gandiaga Topagunean, abenduaren 11ra bitartean. Asteburuetan dago zabalik 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Bisita bereziak ere hartzen dituzte alde zurretik hala eskatuz gero.

• **Fernando Arenaza** bergararraren erakusketa. Fernando Arenaza margolari bergararrak *Hankaz gora* izeneko erakusketa zabaldu du Kutxa Boulevard Aretoan. Teknika askorekin egindako formatu txikiko 52 lan batu ditu. Azaroaren 1era bitartean dago zabalik.

• **Kilometroak 05en aldeko margolan salmenta**. Kilometroak 05 jaialdiaren aldeko margolan salmenta dago hil osoan Arrasateko Harresi aretoan. 20 bat margolari gipuzkoarren lanak daude han erakusketan.

• **Azur-en argazki psikodeliko erakusketa**. Bergarako Ziripot tabernan dago erakusketa hori ikusteko modua hilaren 28 arte. 35 bat argazki osatzen dute. Euskal Herri osoko eta, bereziki, Bergarako jendea eta lekuak dira argazkien gaia.

IKASTAROAK |

• **Internet ikastaroak**. **Artxabaletako KZGunean**. Honako Internet ikastaroak emango dituzte KZGunean: ikastaro orokorra (hilaren 28ra bitartean, 09:00-11:00) eta *Finantza erak-ekin lan egin* (lehenengo zatia bihar, martitzena; bigarrena, etzi, eguaztena; biak 11:00-13:00 ordutegian).

• **Grafologia eta malabar ikastaroak daude Arrasaten**. Grafologia eta malabar ikastaroetan izena eman daiteke Gazte Bulegoan (943 77 00 65; gaztebulegoa@arrasate-mon-dragon.net). Grafologia ikastaroa azaroaren 3tik abenduaren 1era izango da; malabar ariketena, azaroaren 9tik 30era. Biak dira asteen behin, 18:00etan. Matrikula da 20 euro, 10 ikasle eta langabeendako.

• **Euskal dantza ikastaroa antolatu du Oñatzek**. Oñatz dantza taldeak 1998 eta 1999an jaiotakoendako euskal dantza ikastaroa antolatu du. Parte hartzeko, eskola egunetan, egubakoitzean, euren lokalera jo besterik ez duzue, Herri Eskolako sotora, 17:30ean.

ANTZERKIA |

• **Antonino Apreta** ipuina kontatuko dute Eskoriatzan. *Antonino Apreta* ipuina kontatuko du Gorringo taldeak eguenean, hilak 27, Eskoriatzako liburutegian, 18:00etan.

Eguraldia



Udazken giroa izango dugu lagun egubakoitzera bitartean

Lainotsu esnatuko da goiza, baina ostarteak azaltzen joango dira egunak aurrera egin ahal. Haizeak hegoaldeko joko du eta temperatura minimoak altzaraziko ditu. Hala, bihar haizea izango da nagusi eta lainoak ederki mugiaraziko ditu. Eguztenterako ostarte gehiago izango ditugu. Eguenean ere antze-

ra samar egingo ei du. Hortaz, asteak hobetik gehiago izango du txarretik baino. Tenperaturak ere gaur izango ditugu freskoenak; aste barruan hego haizeak epeldu egingo du eguna eta 23 graduren bueltan izango dira maximoak.

Egubakoitzera arte iraungo du udazkeneko giroak.

Goardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 24	Zabala	Zarugalde, 42-44 (943 77 16 30)
Martitzena, 25	Azkoaga	Ferrerias, 1 (943 79 15 15)
Eguztena, 26	Azkoaga	Iturriotz, 17 (943 79 79 99)
Eguena, 27	Corcuera	Maisu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)
Egubakoitza, 28	Irizar	Erguin kalea, 11 (943 79 12 39)

BERGARA

Astelehena, 24	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Martitzena, 25	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 16 87)
Eguztena, 26	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
Eguena, 27	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Egubakoitza, 28	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)

OÑATI

Astelehena, 24	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 11 28)
Martitzena, 25	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 11 28)
Eguztena, 26	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)
Eguena, 27	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)
Egubakoitza, 28	Juldain	Kale Barria 6 (943 78 11 28)

ARETXABALETA

Astelehena, 24	Fraile	Herriko Plaza,10 (943 79 21 99)
Martitzena, 25	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguztena, 26	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguena, 27	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 28	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Laixan / Oñati	943 71 63 11
----------------	--------------

Hondakindegia Alternatiboak

Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegia

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 17	5 • 9 • 23 • 29 • 32 • 34
Osagarria: 39 Itzulketak: 2	
Martitzena, 18	2 • 12 • 24 • 25 • 26 • 33
Osagarria: 4 Itzulketak: 6	
Eguztena, 19	2 • 14 • 19 • 27 • 37 • 48
Osagarria: 8 Itzulketak: 1	
Egubakoitza, 21	12 • 13 • 22 • 25 • 34 • 42
Osagarria: 27 Itzulketak: 9	

ONCE

Astelehena, 17	65.964
Martitzena, 18	59.697
Eguztena, 19	80.623
Eguena, 20	05.337
Egubakoitza, 21	24.642
Kupoitzarra (004 seriea)	
Domeka 23	45.381
Kupoitzarra (035 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 20	1 • 13 • 28 • 32 • 37 • 39
Osagarria: 5 Itzulketak: 6	
Zapatua, 22	3 • 10 • 14 • 15 • 25 • 30
Osagarria: 40 Itzulketak: 2	
Zapatua, 22 (Saritzarra)	6 • 15 • 20 • 39 • 44
Osagarria: 0	

Gazte zerbitzuak

BEKAK |

• **Atzerritar tituludunek** euskal enpresetan nazioartekotze-proiektuak garatzen laguntzeko praktikak egiteko 15 beka, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Epea: urriak 23.

• **Nazioarteko erakundeetan espezializatze**ko 35 beka, zientzia eta teknologiko ikertzaile, teknologo eta kudeatzaileen-tzako. Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzaren eskutik. Epea: urriak 25.

• **Citius Programa.** Universidad Empresa Fundazioaren eskutik. Unibertsitate tituludunak enpresetan sartzeko beka. Epea: urriak 26.

LANA |

• **Administraria.** Eresbil Musikako Euskal Agiritegia. Administrari laguntzaile bat. Interesatuak curriculum eta

eskaria Eresbilen aurkeztu behar dituzte. Epea: urriak 28.

IKASTAROAK |

• **Malabarrak eta zirku teknikak** (diaboloa, akrobaziak, mazoak...), Arrasateko Gazteria Sailak antolatua. Eguztenetan, 6etatik 8ak arte, Gaztetxean, azaroaren 9tik 30era. Matrikula 20 euro, 10 ikasle edo langabeek.

• **Grafologia,** hastapen maila, Arrasateko Gazteria Sailak antolatuta. Ostegunetan, 6etatik 8:30ak arte, urriaren 10etik abenduaren 1era. Matrikula, 20 euro, 10 ikasle edo langabeentzat.

LEHIAKETAK |

• **Kirol Argazkilaritza** Bergarako Udala. Kirol Argazkilaritzako XV. Lehiaketa. Zuri-beltzeko edo koloretako argazkiak. Epea: azaroak 11.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com



Antzuola:
• Altzarte okindegia
• Martin okindegia

Elgeta:
• Kioskoa

Bergara:
• Bolintxo okindegia
• Ogizun okindegia
• Konde okindegia
• Olabe okindegia
• Mizpildi okindegia
• Plazako Kioskoa
• Txurrerua Kioskoa

Arrasate:
• Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
• Balantzategi kioskoa
• Portaloiko kioskoa
• Usue paper denda
• Bolintxo Okindegia
• Kurruxko okindegia

Aretxabaleta:
• Errasti kioskoa
• Ibarra estankoa

Eskoriatza:
• Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:
• Labidea

Aramaio:
• Plazako kioskoa

Oñati:
• Haritza Kioskoa
• Ibarrondo Kioskoa
• Eskolatxo okindegia
• Arantxa okindegia
• Irizar okindegia
• Ogibari okindegia
• Olakua okindegia
• San Lorentzo okindegia
• Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Maialen Gartzia
Urriaren 18an,
3 urte. Zorionak.
Arizmendiko Sanvi
Txikiko lagunak.



ARRASATE
Aroa Etxaniz
Urriaren 19an,
20 urte.
Zorionak!
Etxekoak.



ARRASATE
Maria Etxebarria
Urriaren 21ean, 20
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Koadrilakoak.



ARRASATE
Ekiñe Casado
Urriaren 22an,
3 urte. Zorionak.
Arizmendiko Sanvi
Txikiko lagunak.



ARRASATE
Jon Ganboa
Urriaren 22an,
11 urte. Zorionak.
Arizmendiko Sanvi
Txikiko lagunak.



ARRASATE
Julen Abarrategi
Urriaren 22an 4
urte. Zorionak
Ainhoa eta
Eiderren partez.



ARRASATE
Alatz Gordobil
Urriaren 28an bi
urte. Zorionak eta
muxu bat familia
guztiaren partetik.



ARRASATE
**Nagore
Arizmendiarieta**
Urriaren 23an,
20 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



BERGARA
Egoitz Albizuri
Urriaren 22an, 10
urte. Zorionak!
Arreba Irantzu eta
Bergarako familia.



BERGARA
Amaia Lakuntza
Urriaren 24an,
3 urte. Zorionak!
Antzuola eta
Bergarako familia.



BERGARA
Marilu Unamuno
Urriaren 25ean
urtebetetza.
Zorionak zure
lankideen partez.



BERGARA
Mikel Azkarate
Urriaren 27an, 7
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Olatz Alberdi
Urriaren 28an, 4
urte. Zorionak eta
urte askotarako.
Familiakoak.



BERGARA
Leire Sanz
Urriaren 30ean,
9 urte. Urte askota-
rako! Oier, Laura eta
Maria.



ESKORIATZA
Ekaitz Oñate
Urriak 23an 6 urte
Zorionak eta urte
askotarako familia-
koen partez



ESKORIATZA
Pilar Beitia
Urriaren 21ean,
urtebetetza.
Zorionak.
Etxekoak.



ANTZUOLA
Jose Luis Garcia
Hilaren 24an, 39
urte. Urte askotara-
ko! Familiakoak.



SORALUZE
Mikel Alberdi
Urriaren 21ean,
urtebetetza.
Zorionak Sinatra!
Lankideak.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo
senitartekoak zoriondu
nahi badituzu, **ARRASATE
IRRATIA**k egunero ematen
dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com
helbidera
edo deitu 943 71 17 31
telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7

**ARRASATE
IRRATIA**

Hildakoak

Zoa Manchado de la Rua
Oñatin, urriaren 22an. 91 urte.



**ESKELAK
ASTELEHENKO
GOIENKARIAN**

82 euro
943 25 05 02

Jaiotakoak



Erik Arantzabal Kortajarena
Tolosa • 4,150 Kg. Urriak 11.
Gurasoak: Oier (Aretxabaleta) eta
Estitxu (Tolosakoa).
Argazkian: Erik amaren besoetan,
kamerari adi.



June Sanchez Berrio
Arrasate • 2,810 Kg. Urriak 19.
Gurasoak: Tana eta Sonia
(Arrasate).
Argazkian: June aitaren besoe-
tan, ama ondoan.



Maddi Azkorbebeitia Elortza
Oñati • 3,545 Kg. Urriak 19.
Gurasoak: Mikel (lurreta) eta
Jone (Oñati).
Argazkian: Maddi gurasoekin
erdi lo.



Malen Osinaga Osinaga
Oñati • 3,700 Kg. Urriak 20.
Gurasoak: Asier (Oñati) eta
Maider (Arrasate).
Argazkian: Malen aitaren besoe-
tan.



Izar Mendizabal Aiestui
Oñati • 3,325 Kg. Urriak 20.
Gurasoak: Iñigo eta Lourdes
(Oñati).
Argazkian: Izar amaren besoetan
bapo lo.

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7
'Igo autobusera' | 09:00
Gose taldea eta Euskal Herriko bertso txapelketa
Arrasateko Gose taldeak diskoa aurkezteko kontzertua egin du aseturuan Arrasaten. Horren harira, elkarriketa egingo diote irrati kideek Ines Osinaga taldeko kideari. Horrez gain, Euskal herriko bertso txapelketari ere egingo diote tartea: Unai Bergaretxek Arrasateko emanaldiaren kronika egingo du.

Oñati Irratia

FM 107.4
'Neguko saioa' | 12:00
Guatemalako kontuak Amaia Goitiarekin
Oñati Irratian Amaia Goitia oñatiarrari egindako elkarriketa eman go dute. Goitia hainbat alditan Txipapasen egona da. Laster Guatemalara joko du, han dituzten proiektu batzuk bultzatzeko. Zer asmo duten, eta hango jendea zer egoeratan dagoen azalduko du.

Loiola Irratia

FM 99.8
'Kalez kale' | 12:00
Ordiziako Oiangun proiektu polemikoa

Radio Euskadi

FM 107.7
'Boulevard' | 09:30
Polisarioko Mohamed Abdelazideri elkarriketa

Euskadi Irratia

FM 104.4
'Faktoria' | 11:30
Arrantzaren oraina eta etorkizuna aztergai

Gaur telebistan

GOITB



Pobrezia gainera saioa 'Behazulon' 13:47
Pobrezia zero plataformako bi kiderekin eta gorriak ikusten dabiren boliviar batekin egingo dute berba.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrakizi bizidunak: *Reporter Blues*.
13:45 Gaurkoak.
14:47 Behazulo saioa.
14:15 Eltze beroa sukaldaritzara saioa.
14:30 Eguraldia eta zerbitzuak.
14:35 Lazkao Txiki.
14:45 Albistegi aurrerapena.
15:00 Bidetxurretik.
15:30 Eguraldia eta zerbitzuak.
15:35 Lazkao Txiki.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Ilunpean. Eli Galdos izango da.
16:15 Klip@. Musika.
16:30 Eguraldia eta zerbitzuak.
16:35 Lazkao Txiki.
16:45 Albistegi aurrerapena.
17:00 Didjeridu.
17:30 Motzean eta Zera dio.
17:45 Albistegi aurrerapena.
17:47 Berbaire.
18:15 Jaun eta Jabe.
18:45 Albistegi aurrerapena.
19:00 Klip@.
19:15 16mm.
19:45 Berriak.
20:15 Reporter Blues.
20:45 Albistegi.
21:15 Harmailatik.
21:45 Berriak.
22:15 Harmailatik.
22:45 Albistegi.
23:00 Jazz Zikloa. *Mc Jeara's Band*.

ETB 1



'Goenkale'-ko zaleak aktore lanetan 21:45
Goenkale 12 urte egin dituela-eta, telesail horretako 10 jarraitzaile gonbidatu dituzte.

06:55 Tik Tak Circus.
07:25 Betizu. *Doug, Hirukiak, Doremiren magia eta Montana*.
09:10 Eklipse@.
09:35 Bidaide.
10:25 Sumendian barrera.
11:20 Elkartasunaren bideak. *Ekuador: Kuntur Chawakondorren semak*.
11:50 Bertatik Bertara.
12:30 Hitzetik hortzera.
13:10 Betizu.
14:00 Gaur Egun 1.
14:35 Postada.
14:40 Eguraldia.
14:45 Goenkale.
15:15 Bidaide.
16:10 National Geographic.
17:05 Sustrai.
17:35 E-Klipse@.
18:00 Iparraldearen orena.
18:05 Betizu.
20:00 Gaur Egun.
20:45 Eguraldia.
20:55 Bertatik Bertara.
21:45 Goenkale.
22:25 Basetxea Gorri-Gori.
23:55 Eguna iruditan.
00:00 Postdata.
00:05 Sautrela.
00:30 Kar Kar Kluba.
00:55 Egi bidean.
01:05 Bakarrik edo...
03:05 Bertatik bertara.
03:45 Benta Berri.


ETB 2



Gizonezko bat bularrak ipini guran 23:00
Hasieran, Seanek eta Christianek ezetz esango diote, baina Lizak konbentzitu egingo ditu.

07:10 Del país de los vascos. *El vasco de la carretilla*.
07:35 Rutas de solidaridad. *Honduras I: Caminos de esperanza*.
08:00 Embrujada.
09:00 Forum.
09:30 El Punto.
10:05 La zona muerta. *La tormenta*.
11:00 Stargate. *Revelaciones*.
11:55 La cocina de Pedro Subijana.
12:05 Se ha escrito un crimen.
13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.
14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxebarria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
15:55 Eguraldia. Ana Urtziarekin.
16:00 Pásalo.
18:05 Cine western.
20:20 Esta es mi gente. Claudio Landarekin.
20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrearekin.
21:50 Eguraldia.
21:55 Mi querido kli-kowsky.
23:00 Nip/Tuck: a golpe de bisturí. *Kimberly Henry*.
23:55 El día en imágenes.
00:00 Doctoras de Filadelfia. *Una dosis de realidad eta materia gris*.
01:40 El elegido. *La cosecha*.

TVE 1



Familiako guztiak elkartuko dira 16:00
Amar en tiempos revueltos-en Andrea amarekin elkartuko da, eta baita Antonio Elpidiarekin ere.

06:00 Canal 24 horas.
07:00 Telediario matinal. Igor Gomeze-kin, Susana Rozarekin eta Salvador Martin Mateosekin.
09:00 Los desayunos de TVE.
10:15 Saber vivir.
11:15 Por la mañana. Elkarriketak, lehiaketak eta bestelakoak egingo dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.
14:00 Informativo territorial.
14:30 Corazón de otoño. Txutxu-mutxuen gaineko saioa Anne Igarbururekin.
15:00 Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escariarekin.
15:55 El tiempo.
16:00 Amar en tiempos revueltos.
16:45 Los plateados. telesail berria.
17:30 Amarte así, frijolito.
18:00 España directo.
19:20 Vamos a cocinar... con Jose Andrés.
20:15 Gente. Sonia Ferrerarekin eta Maria Jose Molinarekin.
21:00 Telediario 2. Lorenzo Milárekin eta Jesus Alvarezekin.
21:55 El tiempo.
22:00 Mira quién baila.
00:30 59 segundos.
02:00 Telediario 3.

La 2



Izebaren erruz haratuste barik, Gilmor aldean 16:00
Lorelaik egingo du Stars Hollow-eko haratusteetara joan, ezustean azalduko da eta izeba.

06:00 Euronews.
06:45 Digimon Frontier.
07:15 That's english.
07:30 Los Lunnis.
09:30 Aquí hay trabajo.
10:00 TV educativa: La aventura del saber.
10:55 Diez líneas en el Quijote.
11:00 Las chicas Gilmore. *Eso bastará, cerdo eta Juro solemnemente*.
12:30 Padres en apuros.
13:00 Los Lunnis.
15:10 Diez líneas de el Quijote.
15:15 Saber y ganar.
15:45 Grandes documentales. *Viviendo con Gorilas*.
16:55 Pueblo de Dios.
17:30 Los Lunnis.
19:25 Diez líneas de el Quijote.
19:30 Informativo territorial.
20:30 Deportes 2. Zona ACB.
21:50 Apartamento de soltero.
21:30 Miradas 2.
21:45 Sorteo de la Bonoloto.
21:50 La 2 Noticias.
22:25 El tiempo.
22:30 ¿Qué grande es el cine! *Escandalo de Paris*. Zuzendaria: Douglas Sirk. 1946. Aurkezleak: George Sanders, Signe Hasso.

Antena 3



Marge polizia lanetan hasiko da, emozio bila 14:00
Aspertuta bizi da Marge, eta polizia taldean sartuko da, emozio eta helburu berrien bila.

06:00 Las noticias de la mañana.
08:30 Ruedo Ibérico. Montserrat Dominguezekin.
10:00 La mujer en el espejo.
10:45 Cada día. Maria Teresa Camposekin.
14:00 Los Simpson. *Springfield connection eta El limonero de Troya*.
15:00 Noticias 1.
15:45 El tiempo.
15:55 El auténtico Rodrigo Leal.
16:30 Pasión de Gabilanes.
18:00 Estoy por ti. Anabel Alonsorekin.
19:00 El diario de Patricia.
20:15 ¿Quién quiere ser millonario?
21:00 Noticias 2. Matias Prats eta J.J. Santosekin.
21:45 El peliulón. *El beso del dragón*. Zuzendaria: Chris Nahon. (2001). Aktoreak: Jet Li, Bridget Fonda, Tchéky Karyo, Li Juan. Txinako gobernuaren agente ezaguna Parisera joango da Shanghaitik, misio ultra-sekretua burutzera. Helburua: trafikatzailer arriskutsua atxilotzea.
00:00 7 días, 7 noches.
02:00 Sexo en New York.

Tele 5




Somnanbulu bat hiltzeko gauza da? 'CSI'-n 23:00
Bi emakume hilda azalduko dira, eta baliteke bietako bat izatea erantzulea, baina lo egonda?

06:30 Informativos Telecinco matinal.
09:10 La mirada crítica.
10:45 El programa de Ana Rosa. Karlos Argiñanoren sukaldaritzara saioarekin.
14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Begoña Chamorroarekin.
15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vázquez eta Carmen Alcaydarekin.
16:30 Gran Hermano laborpena.
17:00 A tu lado. Emma Garciaekin.
19:30 Allá tú. Jesus Vazquezekin.
20:30 Informativos Telecinco.
21:15 Camera Café.
22:00 C.S.I. Miami. *La velocidad mata*.
23:00 C.S.I. New York. *Buenas noches madre*.
00:00 C.S.I. Miami. *Inocente*.
01:00 C.S.I. Las Vegas. *No des nada por seguro*.
02:00 Informativos Telecinco.
02:30 Madrugada de cine. *Están dentro*. Zuzendaria: Ellory Elkayen. (2000). Alkoholarekin arazoa daukan zirujaua kostaldetan dagoen herri txiki batera erretiratuko da.
04:30 Infocomer.

Astean GOITBn

Astelehena, 24



'Harmailatik' | 21:15
Asteburuko kirol hitzordu guztiak, gaur gauean
Asteburuak futbolearen, saskibaloian, eskubaloian eta gainontzeko kirolletan eman duenaren berri eman go du Julen Iriondok gaur iluntzean, *Harmailatik* kirol saioan.

Martitzena, 25



'Berbaire' | 22:15
Marijo Deograsiacek gidatuta, mahai-ingurua
Gaurkotasunezko gaiak landuko dituzte Goiena Telebistako mahaiaren bueltan. Ohi bezala, hiru solaskide izango dira Antzuolako kazetariarekin batera.

Eguaztena, 26



'16mm' | 22:15
Elena Sierraren 'Etxera' izeneko lana
Film laburrei eskainitako *16 mm* saioan, gose greban dagoen gazte diabetiko baten istorioa kontatzen du zuzendaria lanetan ibili den Elena Sierra kazetariarekin.

Eguena, 27



'Didjeridu' | 22:15
Ander Rodriguez Ezker Batuko politikariarekin
Didjeridu saioan Ander Rodriguezekin egin diote elkarriketa. Zerk bultzatu duen politikan murgiltzera, zein den bere lana, zeintzuk diren bere zale-tasunak...

Egubakoitza, 28



'Berriak' | 19:45
Berriak Deiane Arrietak, eta informazioa etengabe
Deiane Arrietak eskainiko du gaueko *Berriak* izeneko albistegi. Informazio eskaintza, baina, ez da horretara mugatuko; hamaika albistegi eskainiko dituzte egunean.

Urriaren 24a: 061 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, urriak 24, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

ECRON musika-katea.

- Ohiana Corral Hernandez (Arrasate).

Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Ander Iturriagagoitia Aizpiri (Bergara)
- Arantza Irizar Ortuzar (Aretxabaleta)

Urriaren 31ko sariak

- Azaroaren 4an, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den **DEBAJAZZ** musika kontzerturako bi gonbidapen.
(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



EIBAR-GIJONGO SPORTING

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)





Hamarrekoa

XABIER EUZKITZE | KAZETARIA

"Lazkao Txikik ez zuen begi onez ikusi oholtzara belarritakoarekin igo nintzenean"

Jon Berezibar

1. Jarraitu dituzu orain arteko Bertsolari Txapelketa-ko saioak? Ez dut saioetara joateko aukerarik izan, besteak beste, ordutegiak nire lanarekin pare-parean etortzen direlako eta irratiz jarraitu ohi ditut saioak. Aurten banan-banan lan politak egiten ari dira eta gazte onik ere badator.

2. Zuk, noiz egiten duzu bertsotan orain? Badi-ra zazpi bat urte plazaz plazako ibiliari utzi niola eta orain bertsoez gozatu besterik ez dut egiten.

3. Itsaso aldamean bizi izanda, egunero bainatzen diren horietako zara? Orain, ume txikiekin, ez da erraza, baina gustatzen zait udazkenean dezente sartu arte behintzat bainatzea. Urteko azken bainua Santu Guztien egunean hartzea gustatzen zait.

4. Belarritakoa noiztik daramazu? Aspaldiko kontua da, 90ean edo ipini nuen. Gogoan dut Lazkao Txikik Mutrikun, belarritakoarekin lehen saioa egin nuenean ez zuela oso begi onez ikusi.


Gero, belarritakoarekin albigitegiak aurkezteko urratsa eman behar izan nuen. Belarritako diskretuago bat janzteko eskatu zidaten orduko buruek.

5. Zer moduz konpontzen zara semetxoarekin? Ondo. Seme biologiko bat daukagu, urtebeteko Aner, eta oraintxe Kolonbian izan eta neskatxo bat adoptatu dugu, Garazi. Esperientzia zoragarria iruditzen zait.

6. Zer iruditzen zaizkizu Wazemank programako pilota komentariak? Oso ondo egiten dutela. Beharbada Tolosa imitatzea errazagoa da ni baino, baina Alkain bikain karakterizatzen dute eta ikusten da ordu batzuk sartu dituela nire imintzioak aztertzen.

7. Inoiz jokatu duzu dirurik frontoian? Oso jokalaria urria naiz eta gehien-gehienetan lanera joan behar izaten dut pilotalekura.

8. "Egon adi lo eta jango dek me". Zuk bai, baina zuri askotan esan? Gure aitak du hori esateko ohitura etxean eta txikitik askotan entzundakoak gara.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Pilotalekuan komentaria, oholtza gainean bertsotan zein kameran aurrean aurkezle, ohikoa dugu Xabier Euzkitze gure artean. Hala ere, bere ibilbide luzetik, bertsolaritzan egindako urteengatik gogoratua izatea gustatuko litzaiokoe azpeitiarrari. Haur biren aita da gaur egun eta bertsolaritza profesionala utzi bazuen ere, orain ikusle moduan gehiago gozaten duela dio.

9. Bertsolari, aurkezle, pilota komentaria... Nola gogoratuko zaitu jendeak? Gehien markatu nauen alorra bertsolaritza izan da. Oso gazterik hasi nintzen-eta nire burua bertsolari legez ikusten.

10. Sartuko zinateke Gran Hermanon? Ez eta asko harritu ninduen zuen inguruko neska bat aurkeztu izanak. Halere, euskaldunoi asko gustatzen zaigu saio hau, antza.



Biharamuna

Marijo Deogracias

Iritzi eragile handiak

Berri ere errealitateak fikzioa gaintu du. Eta egun batzutan behintzat, izango dugu hori konprobatzeko aukera telebistako reality show deitzen diren horiei esker. Bergarako **Saray Leal ahizpa handi** bihurtu da. Horri begira izan gara, gura barik ere horrela delako, asteburuan. Egunero zuzenean etxean gertatzen dena jarraitzeko aukera ematen du saioa egiten duen kateak, sareari esker -Goienak ere horretarako aukera sortu du: www.goiena.net/blogak/gh blogean. Bi webguneetan aldeko eta kontrako jarrerak irakurri ditut aste-goienean. **Bloga** sortu izanaren aldeko eta kontrakoak; euskaldun bat GHra aurkeztu izanaren kontura; neskak adierazi duen fibromialgia gaixotasunaren gainean... Iritziak era guztietakoak izan dira; batzuk irakurgarriak, asko, berehala zentsuratzeak (batez ere Tele 5eko webguneak). Ezin da onartu, adierazpen askatasunaren aitzakian, era horretako mezu iraingarri eta nazkagarriak. Parte hartzeko aukera dagoenez, ekarpenak egiteko aprobetxatu eta ez inor etsiarazteko. Gustuko ez duenak ez ikustearekin nahikoa dauka; telebista balde da; zaping egitearekin konponduta.

Etzi Bergarara iritsiko da **kaiera 18/98+** ekimena, etzidamu Arrasatera. Eskubide zibil eta politikoen defentsaren harira izen bereko auzien gainean iritzia emateko eta bakoitzak nahi duena adierazteko **blok handia**. Ez dago zentsurarik.

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

Etetik gabeko programazioa | Informatiboak orduoro | Programazio berria



Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Sari hauetakoren bat irabazi nahi duzu?

- Asturias edo Kantabriar egonaldia: bi lagunendako hiru egun / bi gaueko egonaldia Eroski Bidaiek agentziaren eskutik.
- TVC-Berthen telebista: 14 hazbeteko telebista. Arrasateko Hiper Eroskiren eskutik.

GOITBk programazio berria aurkeztu du. Hala, bidali saio berri baten izena -txartela beteaz edo SMS bat bidaliz-, eta sari hauen zozketan sartuko zara.

Txartel hau moztuta honako helbidera bidali:
GOIENA/GOITB • 132 posta-kutxa • 20500 Arrasate

Saio berriaren izena:.....
Izen-deiturak:
Tel.:
Helbidea:.....
Herria: Posta-kodea:.....

Edo SMS bidez: GTB (hutsunea) SAIOA BERRIAREN IZENA 7505 zenbakira.

Baldintzak: Nahi beste txartel edo mezu bidali ahal izango dira. Txartelak jasotzeko azken eguna: azaroak 9. SMSak jasotzeko azken eguna: azaroak 11. Irabazleen izenak azaroaren 14ko Asteleheneko Goienkaria-n kaleratuko dira. Ez da fotokopiarik onartuko.